

José M^a Sánchez Carrión “Txepetx”:



“Gaur egun hizkuntzen transmisioa telebistaren bidez gauzatzen da, familiaren bidez barik”

Bere abizena ez da ingelesa edo frantsesa. Ez da Fishman, Corbeil edo Bourhis, Sánchez Carrión baizik. Gainera, “Txepetx” esaten diote; izanik gabeko ezizena ez da, ordea. Lan nagusien artean, *Un futuro para nuestro pasado* liburu ezagunari iaz kaleratutakoa gehitu behar zaio: *Márgenes de encuentro. Bilbao y el euskara. Aplicación sociolingüística de la territorialidad*. Liburu horretan, beste askoren artean, hizkuntzak eta hizkuntz komunitateen arteko harremanak lotura ideologikoetatik askatzeko aldarri egiten du. Elkarrizketan, bere ideien berri emateaz gain, euskararen normalizazioari buruz ere mintzatu zaigu Txepetx.

10. or.

Bidaide, gogaide

Zuetako batzuk oporretan zaudete honezkero, beste batzuk, opor egunak hartzeko irrikitan; gehienoi labur egingo zaizue oporraldia, gutxi batzuek, ordea, nahikoa edo gehiegi iritziko diozue. Batzuk etxe bueltan geratuko zarete, eta izango dira paraje urrunak ezagutzera abiatuko direnak ere. Guk, oraingoan, amets egiteko besterik ez bada ere, munduan zehar ibilitako zenbait lagunen pasadizo, bitxikeria, istorio edo hausnarketak ekarri nahi izan dizkizugu. Erreportajea aurkituko dituzu horiek guztiak, eta ametsak amets, gogoratu esaera: txapela buruan eta ibili munduan.

13. or.

18

Euskaraz telefonoz hitz egiterakoan kontuan hartu beharrekoak.

20

Eztabaida:
Nafarroako Euskarren Legeak aldaketarik behar ote?


22

Joxerra Gartzia:
Hitza, arrakastaren giltza (eta II)



Zalantza-dantza

Aldizkariarekin batera *Zalantza-dantza* liburuska aurkituko duzu oraingoan, eta hor, euskararen gainean ditugun hainbat zalantza jaso nahi izan ditugu: hitz batzuen idazkera, kalkoak, zenbait hitzen erabilera zuzena... Horiek guztiak ez daude gaika sailkatuta, hurrenkera alfabetikoan baizik, eta esan bezala, denetarik aurkituko duzu bertan. Gure asmoa da irakurleak lehenik liburuska osorik irakurtzea, eta ondoren, dudaren bat daukan bakoitzean jakin dezala zer-non aurkituko duen. Jakina, horrelako lan batean ezin da dagoen guztia jaso, ezta gutxiago ere; baina, guri interesgarrienak iruditu zaizkigunek, behintzat, izan dute tokitxo bat. Zuentzat probetxugarria izatea besterik ez dugu espero.





PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposaketa eta inprimaketa: Itxaropena S.A.

Marrazkiak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Jon Agirre, Esmeralda Alonso, Gorka Burguete, Iñaki Cerrajería, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Amaia Elosegi, Joserra Gartzia, Jorge Gimenez, Jakes Goikoe-txea, Aitor Gorostiza, Enrike Gorrotxategi, Josu Iztueta, Joseba Lozano, Luma, Ramon Olasagasti, Cristina Puellas, Felipe Uriarte, Ana Urkiza, Rosamari Urritia, J.R. Zubimendi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik ateratu diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legeko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /http://www.ivap.org

PERTSONAIA



Javier Armentia: “Zientziaz bakarrik mezu deigarrienak argitaratzen dira hedabideetan”

Javier Armentiak onartzen du txabusina zuriko zientzialariaren topikoa apurtzen duela. Astrofisikari alde ludikoa aurkitu dio eta ikusleon harridura piztuz, izarrak ezagutzeko jokoak proposatzen dizkigu. Iruñeko Planetariumean ipuinak, erakusketak, musikak eta olerkiak bat egiten dute, eta Armentia da edozein adinetarako proposa den eskola horren zuzendaria. Serio eta txantxetan, luze hitz egin genuen gasteiztarrarekin.

Maiatzean berriro ere munduaren amaiera gainditu genuen.

Bai, eta besteren bat gaindituko dugulakoan nago.

Astrofisikaren ikuspegitik zein da planeta-konjuntzio batek duen interesa?

Batere interesik ez du. Planetak, noiz edo noiz, gutxi gorabehera lerrotatzen dira, eta hori gertatzen da zenbait lege betetzen delako. Badakigu noiz gertatu zen azkenekoz eta noiz gertatuko den berriro. Hortik inolako indarrik sor daitekeela sinestea zentzugabekeria da.

Orain dela gutxi argitaratutako beste albiste batek dio Unibertsoa lau dela.

Hori gauza zeharo desberdina da. Baieztapen hori ikerketa baten emaitza da. Horrelako albiste zientifikoek hedapen handiagoa beharko lukete.

Eta irakurri egin dugu 2007. urtean gizaki kolonia bat Martitzen biziko dela.

Hori ez da egia izango, baina ez ezinezko delako, horretarako dirutza handia behar delako baizik. Horrelako albisteak agertu ohi dira hedabideetan. Orain dela bi urte inguru, urez funtzionatzen zuen motorra asmatu zutela argitaratu zen. Baina askakizun ikusgarri horiek ez dira zientzialariaren komunitatearen aurrean aurkezten, eta denborak aurrera egiten duenean, ahopeka, gezurtatu egiten dira. Zientziaz bakarrik mezu deigarrienak argitaratzen dira hedabideetan, eta hori ez da ona, zenbaitetan gauza inportanteak ez baitira deigarrienak.

Zer datorkizu burura “aerolito” hitza entzuten duzunean?

Aste ikaragarri batzuk. Gauzak gaizki egiteko adibide ona da hori. Fenomenoa berez nahikoa bitxia zen, baina gero euforia bat, masen histeria sortu zen. Bitartean adituek gaia aztertzeari ekin zioten, eta oso ondorio deigarriak lortu dituzte, orain arte ez zelako uste atmosferaren goiko geruzetan izotz puska handi horiek sor zitezkeenik. Baina hori guztia egitea prozesu luzea da, eta publikoaren arretak ez du horrenbeste irauten.

Astrofisika dibertigarria izan al daiteke?

Serioa denak ez du zertan aspergarri izan behar. Esate baterako Unibertsoa lau dela azaltzerakoan, formula matematikoak, tentsio-reak eta erlatibitate orokorraren teoria aipa ditzakezu, baina hori jasanezina gerta daiteke. Dibulgazioak jendearengan jakin-mina piztu behar du, eta horretarako kalera jaitsi behar da eta kaleko gauzak erabili behar dira gauzak azaltzeko. Azalpenak horrela egiteagatik gaiak ez du garrantzirik galtzen.

Hori da planetariumean astrofisika, poesia, musika eta pintura elkartzeko gakoa?

Esan ohi da guk ikasketa planak edukitzea ez dela naturaren errua. Naturak ez daki gauza bat abokatuen zeregina edo medikuen zeregina den. Gauzak eragin eta aspektu oso ezberdinak izaten dituzte. Batzuetan zeruari begira jartzen gara eta erantzunak bilatzen ditugu, eta erantzun horiek zientziaren hizkuntzaz ematen ditugu. Baina zeru berak zirrara poetikoa ere sortarazten du, eta zergatik ez du bada poetak zeruaz, haren hizkuntzaz, hitz egingo? Musika, pintura, literatura... dena da bateragarri.

Pentsamendu kritikoa sustatzeko elkarte baten partaidea zara. Zergatik?

Nire iritziz pentsamendua baliagarri izateko derrigorrez kritikoa izan behar da. Logika da aurrera egiteko bidea, horregatik, fenomeno paranormal guztien inguruan esaten dena kolokan jarri eta logikaren iragazkia pasatzen dugu.

Eta zer gertatzen da horoskopoa irakurtzeko ilusioa duten guztiekin?

Guztioi gustatuko litzaiguke jakitea zer gertatuko zaigun, eta horoskopoei, itxuraz, erantzun bat ematen digute, baina niretzat iruzurra da. Oso gauza orokorrak esaten dituzte. Benetan sinesgarri egin nahi badute, dena idatziz eman beharko lukete, eta bermearekin, esandakoa betetzen ez bada erreklamatu ahal izateko.

**Cristina Puellas
Kazetaria**

Pazientzaindia

Badut lagun bat sendagilea izateko urte mordoia ikasten daramana. Lehengo batean, interneten handik hona zebilela, bere frustrazioa ulertzen lagunduko zidan zerbait aurkitu eta bidali egin zidan email batean. Harvardeko Medikuntza Fakultateko dekanook graduazio-egunean emandako hitzaldi bat zen, eta hango pasarte batean hau zioen berak: “*Irakatsi dizuegunaren erdia okerra da. Zoritxarrez, ez dakigu zein den erdi hori*”. Mezua irakurri eta berehala erantzun egin nion: “*Antzeko zerbait jarri beharko lukete Euskaltzaindiaren arauetan*”.

Izan ere, lagunaren frustrazio berbera nabaritzen dut neure barruetan –nik eta ni bezalako arau-jale askok–, hainbat hitz eta egitura sartzeko sekulako ahaleginak egin ondoren, *orain* erabilera okerrak direlakoan bazter utzi behar izatean: *aman-komun, aurrekalde, derrigorrez, eritzi, erazi, guzti hori, ihauteri, liburudenda...* (erne ibili *ohizko*: abisatuta zaude!).

Hor gelditu dira, bidearen bazterrean, Golgotaranzko euskaldunbidean izan ditudan hamaikatxo bidelagun. Eta kantuak dioen bezala, zerbait hiltzen da gogoan lagun bat partitzean. Baina hasia naiz sumatzen pixkanaka hiltzen den hori pazientzia bera dela. Nire ustez pazientzia (edo sumisio) handiegia dugu.

Esaterako, Euskaltzaindiak urtarrilerako iragarrita omen zuen interneteko txokoa, baina lerro hauek idaztean zabaldu du.

Hori ez da txarrena: ohituta gaude Akademia luzamendutan ibiltzen ikustera. Txarrena izan da sei hilabeteotan bertan mantendu duten *behin-behineko* mezua. Hantxe gaztelaniatzko testua zegoen aurrena; euskarazkoa, ordea, gero (frantsesezkoaren arrastorik ez: non ote, Iparraldeari zor omen diogun begirunea?). Eta nahikoa ez balitz bezala, hona delako euskarazko mezua: **Orri hau sortze prozesuan dago.** [Ez ote dario erdal kutsu handiegirik? Ez ote da naturalagoa *Orri hau egiten ari gara?*] **Barkatu sortu daitezken eragozpenak.** [Ez ote dugu *daitezKEEN* idatzi behar? Beharrezkoa ote da *sortu daitezkeen hori*? Ez ote da nahikoa *Barkatu eragozpenak?*] **Egun batzuetan orria argitaratua egongo da.** [Eta beste egunetan, zer? Ez ote da hobea *Laster izango da ikusgai* edo antzekorik?].

Nire ustez, ez dirudi hizkuntzaren akademia bati dagokion kalitate-maila denik. Beharbada, testuok ez ditu euskaltzain batek egin, baina horrek ez du erantzunkizunik zuzitzen, Euskaltzaindiak berak zorrotz aztertu beharko lukeelako bere izenarenpean ateratzen den oro eta, batez ere, hizkuntzari ematen zaion tratamendua. Eta zorrotz aztertu ezean gainbegiratu, behintzat, hilabeteak eman baititu testuak, zuzenketarik bat ere izan gabe. Norberaren etxean ere erakutsi behar baita besteei eskatzen zaien zuzentasuna eta egokitasuna.

Zigor Araujo

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

www.go.to/interinez



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzuliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahal du sail honetan bertan.

EUSKAL LIBURUGINTZAREN ETORKIZUNAZ

“Euskal” adjektiboa aurretik daraman zernahiren etorkizuna irudikatzea beldurgarri samar gertatzen den honetan, oztopo are mardulagoak ateratzen zaizkigu bidera, adjektibo horren ondoren datorrena liburugintza izena baldin bada.

Izan ere, beste edozein gizarte-alorri bezain ezinbestekoa, edo ezinbestekoagoa akaso, zaio liburugintzari normaltasuna (irakur bedi, hemen, “ideien zirkulaziorako giro egokia”), gurean ametsetik utopiara doan zubia igarotzeaz bide dagoen kontzeptu berez ezinago apal hori.


Herri baten liburugintza izanik herri horren heldutasunaren adierazgarri behinena, bera izango da, halaber, heldutasunarako bidean sortzen diren tentsioak jasan beharko dituenetan aurrenetarikoak. Zer esan, beraz, erabateko desitxuraketaren bezperan dirudien gure gizarteaz aurrera atera beharreko liburugintzaz?

Gogoan ditut –era temati batean– duela ia bi urteko itxaropenak, eta begien aurrean ikus dezaket haize haiek astindu zituzten orbel zaharren dantza eroa: garai berrien zurrunbiloak estoldetarantz zeramatzan, gupidarik batere gabe, sofrikario zahar esklerotizatzaile guztiak, gorrotoaren eta sineskaria ororen zirtzil antigoalekoak. Gaur, berriz, estoldak ok egin du, eta laster gure oinek ez dute kale-bazter garbirik bilatuko.

Requiem baten preludea dirudien konstatazio honen ondoren, aurrekoak bezain egiazkoak iruditzen zaizkidan beste batzuk ere papereratu nahi ditut, liburugintzaren etorkizunaz ezinbestez esan beharrekoak ere egokitu zaigun garaiaren gorotzetan ito ez daitezten. Nire kautarako daukat, gainera, euskal gizartegintzaz ari garela, euskal liburugintzaz hitz egiten dugunean.


Euskal liburugintzaren bilakabidea eta gaur egungo egoera zehazten dituzten datuak aski ezagunak direnez, bada, sektorearen baitan gauzatzen ari den hausnarketaren ildo nagusiak ekarriko ditut hona, kultur eztabaida zabalago baten osagarri gerta daitezkeelakoan.

Kultur homologazioaren bidean, euskal liburugintzaren aniztasunari dagozkion kezkek osatzen dute lehen gogoeta-multzoa, eta, horretan, beharrian atzeraezin bat da nagusi: euskal liburugintza orekatzea, bai ekoizpen alorre dagokienez, bai eta sortzaileak babesteko eta promozionatzeko ahaleginean ere.



Euskal liburugintzaren industriarena da landu beharreko bigarren eremua (ez garrantziaren arabera bigarren, hala ere). Begibistakoa da, eta ez soilik euskal liburuaz ari garela, sekulako abiadan ari direla erosketa usadioak aldatzen, eta aldaketa horrek, noski, liburuaren zirkulazioa (saltokiak, banakuntza, promozioa...) hein berean egokitzea eskatzen du, batetik, eta, pare berean, ekoizpen egiturak (argitaletxeak, inprimeriak...) eguneratzea, profesionalizatzea eta sendotzea. Garbi ulertu behar da ekoizpen egiturak sendotzeak ez duela esan nahi, inondik inora ere, egitura horien handitasuna lehenetsi behar denik: ez dezagun begien bistatik gal kultur balioen euskarri sendoenetako bat dela ekoizpen egituren aniztasuna.

Euskal liburuak, bestalde, gizartearen babes tinkoa behar du, eta guztiz premiazkoa da babes horren inguruan liburutegi publikoen, irakaskuntzaren eta hedabideen lana bateratzea.



Bada, hala ere, hausnartze hauen jomugan kokatzen den oso bestelako arazoa, euskal liburugintzaren etorkizuna zeharo baldintza dezakeena: zeinahi izanik ere gauzatu beharreko neurri zehatzen zerrenda, gizarte osoa inplikatzeko duen eginkizun baten aurrean gaude. Garbi al dugu liburugintza (kultura, orohar) eraginkorra eta dinamikoa nahi bada, ahalik eta autonomiarik handienaz kudeatu behar dela? Garbi al dugu ezinezkoa dela euskal liburugintzarentzat (kulturagintzarentzat, orohar) errebindikatzen dugun babes gorabehera politikoen baitan utzi? Garbi al dugu euskal liburugintzarako alor pribatuko erakundeek izendatzen dituzten diru baliabideen erabilera instituzio publikoen eta liburugintzaren sektorearen ahaleginekin bateratu behar direla?

Azken hiru galdera horiei baiezkoa erantzunez gero,aldi berean abiapuntu eta helmuga den zerbaitetan kokatuko genuke euskal liburugintzaren geroaren gakoa: euskararen gaurko eta biharko kultura eta jakintza eremuetarako prestatu behar da euskal liburugintza, eta prestakuntza horrek bi zutabe nagusitan oinarritu beharra dago: instituzio publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaz, alde batetik; eta, bestetik, euskal liburugintzaren sektorearen sormen eta ekoizpen indarrak garatzen lagunduko dituen babes soziala.

Jorge Gimenez Bech

Euskal Editoreen Elkarteko lehendakaria

Euskaltzaindia Interneten

Euskaltzaindiak hainbat zerbitzu informatiko eskainiko ditu laster Internet bidez, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta EAeko hiru Foru Aldundiek emandako dirulaguntzei esker. Alde batetik, corpusak kontsultatu ahal izango dira: *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Arauak*; eta beste alde batetik, Jagonet izeneko zerbitzua abian jarriko da.

Corpusak, izendegiak eta katalogoa

Corpusak sarean izango dira, erabiltzaile ooren esku. Corpusaren barruan hauek dira lan garrantzitsuenak:

Orotariko Euskal Hiztegia. Hiztegi orokor eta deskriptiboa da hau, ez arauemailea. Bertan, garai eta euskalki guztietako lexikoa jasotzen da. Sarrera bakoitzean, hitza bere testuiguruan agertzen zaigu: hau da, jatorrizko esaldian txertaturik.

Hiztegi Batua. Hiztegi hau arauemailea da, eta bertan adierazten da zein hitz edo forma diren hobestekoak eta zein baztertzekoak. Helburua da oinarritzko euskal hiztegia finkatzea; eta, tarteka, hitzaren formaz gain, informazio osagarriak ere ematen dira: erabilere-mua, erabilera sintaktikoa, erregimena, adiera... Halaber, sarrera nagusien ondoan, azpisarreraren moduan jasotzen dira tradizioan ongi errotutako hitz eratorriak, esapideak eta horrelakoak. Hiztegia ez dago guztiz osatuta, aldi behineko berrikuspenekin osatuz joango baita.

Euskaltzaindiaren arauak. Orain arte *Eusker*-n eta karpetetan argitaratu izan dira. Euskaltzaindiak emandako arau guztiak biltzen dira bertan.

Euskal Deituren Izendegia. Liburuan argitaratutako hamar mila inguru deitura dakartza, gaztelaniazko grafian daudenak euskaraz ofizialki nola diren adieraziz.

Argitalpenen katalogoa. Euskaltzaindiak argitaratutako liburuaren katalogoa kontsultagai jarriko da.

Kontsulta-zerbitzua

Kontsulta-zerbitzua bi erabiltzaile-motari begira antolatuko litzateke: alde batetik, euskalgintzako profesionalak; eta bestetik, euskaltzale arruntak.

Kontsulta arruntak eta erantzunak, orain arteko guztiak, datu-base batean jaso eta nork bere ordenagailutik kontsultatzeko moduan jarriko dira: Euskaltzaindiak orain arte emandako arauen gaineko zalantzak, terminologia-auziak, atzizkiei buruzkoak, sintaxiari dagozkionak, eta abar. Horrez gainera, badira 81 orrialde Bilboko egoitzan eragile teknikariak idatziz erantzundako hizkuntza-kontsultak bilduaz osatuak.

Euskaltzale arrunten beharrez gain, ordea, bada besterik ere. Bada laguntza eske ari zaigun multzo nagusi bat: euskalgintzako milaka profesionalena. Euskalgintzako profesionalen unean uneko kezka eta egunean eguneko zalantzak argitu ahal izateko, ez da aski datu-base antolatu bat eskaintze hutsa; baizik eta etengabeko harreman bizia bideratu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da *Jagonet* azpisare informatikoa sortzea.

Jagonet

Jagonet zera izango dugu, Euskaltzaindiak berak antolatutako sare informatikoaren zati bat: Jagon sailaren eginkizunak bete ahal izateko antolatutako zerbitzu informatikoa. *Jagonet* sarean sartzen denak, Euskaltzaindiarengandik hartarako sarbidea eta giltza eskuratzen dituenak, euskalgintzako profesionalen zerbitzura antolatutako plaza aurkituko du. Plaza hori, profesionalen ordezkarietako harreman bizietarako zerbitzu hori, etengabeko Jagon topalekua izango da, Euskaltzaindiaren kontrolpean.

Jagonet sarean zerbitzuok eskainiko dira:

- Kontsulta- eta aholku-zerbitzu bateratua eta eguneratua.
- Trebakuntza-ikastaroetako partaidetza koordinatua.

Jagonet antolatzeko, zer eskainia izan ahal izateko, zabalkunde orokorrerako datu-basea beharko da:


- Edukiz, askotarikoa: arauak, lexikoa, kontsultei emandako erantzunak...
- Mamiz, laburra, funtsezkoena bakarrik emanez, argi eta garbi.
- Nornahiren eskurakoa, Euskaltzaindiaren gainerako datu-base osoak espezialistentzat-eta utziz.
- Etengabe eguneratua, batez ere kontsulten erantzutegia.
- Diseinuz, erabilterraza eta erakargarria.

Horrez gainera, kanpotiko galderak eta kontsultak samurki bideratzeko moduko estekaz edo “hiperbinkuloz” hornitua beharko du izan. Hemen azaldutako eduki guztiak oraindik sarean ez badituzue ere, bai horietako batzuk helbide honetan:

www.euskaltzaindia.net

J. R. Zubimendi

Euskaltzaindia Jagon sailekoa



Parkeko gizona

Hautsak kentzeko trapua astindu asmoz leihora urreratu zenean ikusi zuen. Parkean bakar-bakarrik jarrita. Begiak puntu batean finkatuta. Mugitzeke. Aiduru bezala.

Trinik ez zuen parkeko gizona ezagutzen. Ez zuen sekula ikusi. Baina ezagutzen zuela esango zukeen. Pentsatzen zegoena ere asma zezakeela. Hurbil, oso hurbil sentitzen baitzuen. Bazekien bakarrik zegoela, bakarrik eta triste. Bazekien, parke hartan, ez zitzaiola inor hurbilduko, ez egun hartan, ez hurrengoan, ez inoiz.

Jubilatu berria zela antzematen zitzaien, ez zekiela nora jo, zer egin, nori deitu...

Fruitategira jaitsi zenean, Trinik bere eguneroko dendariarekin solas egin zuen:

- Ikusi al duzu hor aurrean eserita dagoen gizona?
- Parkean? Ez! Nor da ba?
- Hori zuk esatea nahi nuen nik!

Dendariak, atera hurbildu, eta parkera begiratu zuen. Lehenik, begiak txikitu zituen, kaleaz bestaldeko parkeko gizona ikusi ahaleginean, fokatu beharra bailuen. Gero, hats egin eta atearen kristala amantalararekin garbitzen hasi zen, parkeko gizonari susmatzeko arrazoirik eman ez zekion, edo beharbada, kristala zikina zuela konturatu zelako.

- Jakingo ez dut ba! Zera... merkatal bidaiaria da! Beno... merkatal bidaiaria zen... ze orain, jubilatuta dago!
- Nik bai igarri! –atera zitzaien Triniri–. Pentsatu dut jubilatuta egongo zela...
- Ba bai, barruko arropa saltzen ibiltzen zen, hemen, goiko Josefanean eta abar... Beti esaten zuen, jubilatzen zenean, emaztea hartu eta etxetxo bat erosiko zuela mendian. Belar usaina zuela maite, isiltasuna, bakardadea... eta ez eguneroko buila hau... Kotxea gehiago hartzeko asmorik ez zuela... mendira joan eta hantxe geldituko zela...
- Eta?
- Jubilatuta eta emaztea hil zaiola!
- Ene bada!
- Beno, hil ez. Okerrago! Eroetxera eraman beharra izan dute! Pena izugarria!
- Holakorik ez dut asmatu!
- Ez da asmatzen erraza, ez! Bizitza guztian lan egin eta gero... Horrela bukatzeko...

Trinik ez zuen gehiago jakin beharrik. Aski zen. Ezagutzen zuen jada.

Hurrengo egunetan ere, Trini propio aterako zen parkera irekitzen zen leihora hautsak kentzeko trapua eskuan zuela, egunak aurretik begizaturiko gizona han ote zegoen ikustera. Eta egunero hantxe aurkituko zuen, banku berean jarrita. Arropa berberarekin. Zangoak gurutzatuta. Eskuak gabanaren poltsikotan sartuta. Begiak puntu batean tinko. Aiduru bezala.

Arnasarik ere ez zuela hartzen zirudien. Egunak argitzen zituen orduz gain, gaua ere parkean egiten zuela esan zitekeen.

Eta Trinik, bihotza erdibituta, “biharkoak ez dit egingo” esan zion bere buruari: “Bihar parkera jaitziko naiz”.

– ¡Buenos días! –Trinik.

– ...

– ¿Está usted esperando a alguien? –galdetuko zion.

Deus ez.

Gizonak begirune zorrotz bat bota zion erantzuntzat. Zegoen lekutik jaiki, eta irakurtzen ari zen liburua bankuan utziz, alde egin zuen geldiro-geldiro. Hiruzpalau metro...

trora, gelditu, burua eta gorputz erdia bueltatu, eta banku gainean utzitako liburura joan zitzaizkion begiak, eta gero Trinirengana, azken hau liburua irakurtzera gonbidatuko balu bezala.

Liburuak, euskarazko titulu bat iragartzen zuen azalean.

– Kaka zaharra! –atera zitzaien Triniri.

Parkeko gizonaz den-dena zekiela uste izan zuen. Izen-abizenak bakarrik falta. Baina hizkuntzarena, horixe bai ez zuela espero. Ez zekien zergatik jo zuen gaztelarrera. Horixe xelebreena!


Beharbada, maitasunaren hizkuntza gaztelera zela iruditzen zitzaiolako... edo pertsona interesgarriak gaztelera mintzatzeko zirela pentsatzen zuelako...?

Trinik gauza asko zekizkien, bai parkeko gizonaz, bai beste anitz gauzez. Ezezagunen bizitzetan sartzeko dohaia zuela uste zuen, lagun berriak erraz egitekoa, harremanetan berehala hastekoa...

Baina ez zekien zergatik jo zuen gaztelarrera.

Liburuaren azaleko tituluak, bere kontzientzia damutua baitzuen, euskaraz hurbilduz gero, seguraski, parkeko gizonak emaztearen zain zegoela erantzungo ziola pentsatuz kontsolatzeko eskatu zion.

Trini, hasperen sakon batek harrapatu zuen ustekabea. Eta bankuan jarri zen. Mugitzeke. Aiduru bezala.





Mundua on line

ItzuL, euskal itzultzaileen posta-zerrenda

Euskal itzultzaileen tresna lagungarria da ItzuL, egunero lanean sortu ohi diren arazoak beste itzultzaileen laguntzaz konpontzeko eta eztabaidatzeko foro elektronikoa eskaintzen baitu.

Bereziki, gai hauek eztabaidatzen dira EIZIEk sortutako ItzuL zerrendan:

- Itzulpen-arazo praktikoak: terminoak, esamoldeak, jatorrizko testua ulertzeko zailtasunak, kontzeptu ilunak, izen propio ezezagunak, eta abar.
- Erreferentziak, hiztegiak, hitz-zerrendak eta beste zernahi gisako informazio-iturriak non aurki daitezkeen.
- Softwarearen globalizazioari eta lokalizazioari lotutako arazoak.
- Itzulpen-teoriari buruzko gaiak.
- Egindako itzulpenen ordainketa-arazoak, itzultzaileen lan-baldintzak, lanbidearekin lotutako gaiak.
- Itzulpen-munduko berri jakingarriak.
- Itzultzaileak erabili ohi dituen tresna nahiz programa informatikoen gaineko zalantzak, galderak, konponbideak, berriak, eta abar.
- Itzulpen-arloko lan-eskaintzak.

ItzuL zerrenda publiko, ireki eta moderatu gabea da. Harpidedunek zerrendara bidalitako mezuek automatikoki banatzen zaizkie zerrendakideei, inolako giza ukiturik gabe.

<http://www.eizie.org/euskara/tresnak/itzul.htm>

EuskaraZ, euskarari buruzko posta-zerrenda

Euskara hutsez euskararen gainean jarduteko posta-zerrenda da EuskaraZ. Udako Euskal Unibertsitateak kudeatuta, euskarari buruzko edozein gaik du lekua hemen. Informazioa modu azkarrean trukatzeko balio izatea da helburua; esate baterako, komunikabideetan argitaratzen ez den informazioa baina euskalgintzaren jardunerako interesgarria dena. Era berean, komunikabideetan agertu arren horietan azaldu ez den zehaztasun bat azaltzeko erabil daiteke, edo komunikabideetan agertuko den arren euskaltzaleei berria aldeztetik zabaltzeko ere balio dezake posta-zerrenda honek. Posta-zerrenda hau ez da kirolaz, politikaz, gastronomiaz, edo beste edozein gairi buruz euskaraz jardun ahal izateko; beste hauek ditu eztabaidagai, ordea: ikastolen nondik norakoak, euskarazko komunikabideenak, administrazioaren euskalduntzea, euskara-elkarteen esperientziak, euskara lantokietan normalizatzea, kirola euskalduntzea, euskararen aurrekontuak, eta abar.

<http://www.ueu.org/euskaraz.htm>

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

Euskararen Kontseiluak Bai Euskarari ziuertagiria banatu du

Hizkuntzaren aldeko urratsak saritzeko asmoz, Euskararen Kontseiluak *Bai Euskarari ziuertagiriak* banatu ditu. Ziuertagiriok lortzeko, gizarte eragileek gutxieneko konpromiso batzuk bete behar izan dituzte. Ziuertagiria aldi baterako da, eta eskuratzeko ordaindu egin behar da; gainera, Kontseiluak ziuertagiria ken diezaioke behin eman ondoren gutxieneko konpromiso horiek betetzen ez dituenari. Ziuertagiriak ikur bat izango du, eta hori erabili ahal izango da publizitatean, eta baita kanpo zein barruko harremanetan ere.

Aurki bilatzailea: www.aurki.com

Interneten eskuragarri duzu dagoeneko euskarazko lehen bilatzailea. Direktorio horretan lotura euskaldunen bilduma osoa aurkituko duzu; azalpenak euskaraz daude, eta web orri gehienak euskara hutsez, elebidunak edo eleanitzak dira. Gune honetan, Euskal Herriari buruz erdaraz idatzitako web orriak ere aurki daitezke atal berezi batean, eta bestelako gauzak edozein hizkuntzatan topatzeko bilatzaile gisa ere erabil dezakezue.

Euskaltzaindiak eta UZEIk hiru urterako hitzarmena sinatu dute

Bi erakundeek hiru urterako hitzarmena sinatu dute bi lan burutu ahal izateko. Alde batetik, 1987. urtean martxan jarri zen EEBS proiektua: XX. mendeko euskal testuen inbentario sailkatua egitea, hau da, laginak definitu, jaso beharreko testu zatiak jaso, egituratu eta lematizatzea. Eta, bestetik, *Hiztegi Batua*, eta horretarako, UZEIk, orain arte egin duen bezala, hitz zerrendak prestatuko ditu Hiztegi Batuko lantaldearentzat.

AEK, SEASKA eta EGUNKARIA

Hemendik, zorionak eman nahi dizkiegu AEKri, Seaskari eta Egunkariari, AEK-k eta Seaskak 30 urte betetzen dituztelako, eta Egunkariak, 10 urte. Egunkariak, gainera, beraien 10. urteurren honetan *Bizkaia* izeneko gehigarria atera du. Gehigarria egunero banatzen da egunkariarekin, eta bertan, izenak dioen bezala, Bizkaiko berriak jasotzen dira bizkaieraz idatzita.

Solatziko lurremailea

“Ederra, ba! Joaquin Fernandez de Bakaikoa hilik dago, hilik!”. “Zer diozu!?”. Alkateak ezin zuen horrelako berri txarrik onartu. “Bai, hilik. Bihotzekoak eman ei zion herene-gun”. Alkatearen ukabilkadek zalantzan jarri zuten udaletxea eraiki zuen arkitektoaren sinesgarritasuna. Goxoa zegoen Hilario Gomez de Ultzama, goxoa, eta bazuen nahikoa arrazoi. Hiru egun besterik ez ziren Joaquin Fernandez de Bakaikoak Solatziko ehorzle lanpostua erdietsi zuenetik. Zerrendan beste bat egon balitz, hor konpon, Solatzitarrei lur emateko berdin baitzen Fernandez de Bakaikoa, Diaz de Amundainain edo Lopez de Akarregi. Baina, tamalez, Fernandez de Bakaikoa zen bakarra. Egoera, beraz, kezkarria zen benetan. “Azkenean neuk lurperatu beharko ditut hilak” esan zuen alkateak bere artean. Edo, are okerrago, Gasteizko ehorztetxe bati jarraitu beharko zion ordaintzen hileta-zerbitzuak.

Bai, Joaquin Fernandez de Bakaikoa hilik zegoen. Hilik, baina ez hilotzik. Sugar batek kiskaltzen zizkion barneak Urubiko kanposantuko bere hilibian. Infernukoa ote? Izan ere, hogeita sei urte eman zituen lurremaile lanpostua lortu nahian. Hogeita sei urte, eta lortu zuen unean bihotzekoak eman zion. Ez zegoen eskubiderik, ez horixe. Hala eta guztiz ere, Joaquin Fernandez de Bakaikoa ez zegoen prest inork lanpostua ken ziezaion. Azken batean, bazegoen, hildakoez arduratzeko, hildako bat baino egokiagorik? Gauez laga zuen hilibia.

Hilario Gomez de Ultzama alkateari ere eman behar zion bihotzekoak. “Zonbi bat Solatziko udal-lurremaile? Burutik egin al zaigu? Zer daki zonbi batek xedapen, dekretu eta abarrei buruz?”. Baina funtzionario guztiek ez dute xedapen, dekretu eta abarrei buruz zertan ulertu. Begibistan dago hori. “Gainera, hemendik aurrera inork ez digu leporatuko Solatziko udalak ez diela hildakoei merezi duten errespetua erakusten” barre egin zuen Rodriguez de Larrea idazkariak. Alkatearen haserrea begibistakoagoa zen, baina, bestalde, era horretan ez zituen ehorztetxe pribatu baten zerbitzuak ordaindu beharko. “Esan sartzeko eta sinatzeko. Buka dezagun lehenbailehen”. Joaquin Fernandez de Bakaikoa astiro sartu zen, munduko denbora guztia balu bezalaxe. Zurbil samar iruditu zitzaion alkateari. Zurbil eta iluna aldi berean. Ezinezkoa zatekeen udal-lurremaile beldurgarriagorik topatu izana. “Tira ba, zer egingo diogu, lanpostua berriro ateratzekak luzeegi joko luke”. Bestalde, batasun sindikalak sekula ez zion zegokion lanpostua ukatuko berpiztutako hildako bati. Ondotxo zekien hori Hilario Gomez de Ultzamak.

Solatz herrixka bat izanik, Joaquin Fernandez de Bakaikoak ez zuen demaseko lanik. Noizean behin inguruko herrietara joaten zen laguntzera. Aholkuak ere ematen zituen. Dirudienez, hildakoko gusturago dautza ahoz-behera. Handik las-

terrera, bada, Arabako herri askotan horrela lurperatzeari ekin zioten. Hildakoen senitartekoez berehala uxatzen zituzten hasierako aurriritziak, hain ehorzle ospetsua bilakatua zen zegoeneko Jokin Fernandez de Bakaikoa.

Lanbide berrian sei hilabete ez zeramatzala, Administrazioak hildako bat ere suspertuko zukeen ezustekoa eman zion. “Bigarren Hizkuntza Eskakizuna lortu beharko duzu”. Zurtutu egin zuen, zurtutu zuenez, nolatan udal-lurremaile batek ikasi behar zuen hiltzeaz zegoen hizkuntza bat. Non eta Solatzin, gainera. Alkateak berak ere ez zekien euskaraz. Dena den, lasai egoteko esan zioten, ikasten ari zen bitartean ez baitzuen zotzik albora ere egingo. Udaleko Gomez de Ultzama, Rodriguez de Larrea eta abarren harridurarako, ostera, pikorik ez emateak artegatu eta kezkatzen zuen de Bakaikoa.

Euskaltegi batean matrikulatu zen, Gasteizen, Solatzitik 40 minutura trenez. Lehen bidaia amai ezina iruditu zitzaion. Solatz eta inguruetakoa herrietako hilak berriro ehorztetxe pribatu baten esku hotzetan zeudela pentsatze hutsak amorrubizian jartzen zuen. “Eta okerrera, baietz ahozgora lurperatu!” bururatu zitzaion. Euskaltegiko giroak aztoratu egin zuen hasiera-hasieratik. Dena zen parranda, dena barre-

-algara, dena baina iepa kaixo, dena alaitasuna. Bera ez zen bizidunen pozaren lekuko izatera itzuli, Administrazioarekiko eta bere buruarekiko zorrak kitatzera baizik. Bere ikaskideak ikustean, behintzat, jakin zuen ez zegoela bakarrik munduan. Beraiek ere funtzionarioak ziren, dudarik gabe. Eta burua egingo zuen beraiek ere udal-lurremaileak zirela, Hernandez de Kortazar, Diez de Olaso, Gutierrez de Egibar. Guzti-guztia adierazten zuten bisaiaik aurpegiak begitartek.

Egunak aurrera joan ahala, ostera, gustura hartu zuen ikastaro trinkoa. Atsedendietan bainaiepakaxoek kafe bana edaten zuten; euren ordea, makailu pintxoak eta Albariño. Dena zen parranda, dena barre-algara, dena baina iepa kaixo, dena alaitasuna. Gustura zebilen. Oso gustura. Baina bera ez zen bizidunen pozaren lekuko izatera itzuli, ezpada hildakoei behin-betiko bake publikoa ematera. Zertan zebilen euskaltegi batean munduko denbora guztia balu bezalaxe? Euskaraz egitea ez zen zonbi batentzako ardura. Kanposantura behar zuela erabaki zuen, bada, ahuspez, inoiz ere ez bueltatzeko, Dieguez de Zabala, Garcia de Zuaza eta Sanchez de Respaldiza ziren guztiekin.

"Hiru egun besterik ez ziren Joaquin Fernandez de Bakaikoak Solatziko ehorzle lanpostua erdietsi zuenetik"



José M^a Sánchez Carrión "Txepetx":

"Hizkuntzen teoria unibertsala proposatu dut"

Bere izena daraman fundazioan hartu gaitu José María Sánchez Carrión "Txepetxek". Idazle eta ikerlariaren hitzetan, Bizi+Hitza fundazio hololinguistikoa sortu da "elkarren aberasgarri diren gizakien hitz eta hizkuntza anitzei bizia ematen laguntzeko, eta era berean, gure hizkuntzetarik bakoitzean Bizitari hitza emateko". Izan ere, Txepetxen ustetan, okerra bezain alferrikakoa da tokian tokirako hizkuntzen teoriak asmatzen ibiltzea. Hizkuntzen teoria zientifikoa izango bada, honako betebeharrak hau bildu behar du: "Toki batean eta garai batean egia dena egia da edonon eta edonoiz, lehengo toki eta garai horretako baldintzak betetzen baldin badira".

Zure ezizenak ttipia, hauskorra adierazten du; izanak, berriz, handia, zabala, emankorra. Nor da Txepetx, arranoen moduan hegan egiten duen txoritxo? Hasi nintzenetik erabilitako sasi-izena da Txepetx, tragedia klasikoaren mozorroaren azpian ezkutatzen den pertsona bilzen duena. Beraz, bat da mozorroa eta beste bat, oso bestelakoa, pertsona. Pertsona gisa, berdintasunaren printzipioan oinarritzen den gakoari jarraituz, ni ez naiz inor baino gehiago edo inor baino gutxiago. Zer dugu, berriz, aktorearen jantzia? Neuri alor berri baten aurrean egotea egokitu zitzaidan. Gaia ez zen berria, alorra zen berria. Eta egokitu zitzaidan begirada berri bat eraikitzea, hots, begirada intralinguistikoa, hizkuntza erdian jartzen duena, hitza eta arima maila berean jartzen dituen. Eta hori egiten dugunean, gauzak arimaren ikuspegitik ikusten hasten gara. Neure burua paisaia horren aurrean ikusi nuenean, ohartu nintzen oso aberatsa zela eta jokatzera erabaki nuen. Baina jokatzeko, pertsonak mozorro bat behar zuen, eta horretarako egokiena Greziako komediaren satiroarena da, hots, bere burua nabarmendu gabe inguruan gertatzen den orori erreparatzen diona.

Hitza eta arima aipatu dituzu, arima eta hitza. Nola ulertzen duzu hizkuntzen arteko elkarrizketa, elkarbizitza?

Nik metodo logiko bat eraikitzen dut, baina metodo horrekin ezin dut guztia azaldu, errealtatearen zati bat irrazionaltasuna baita. Gutako bakoitzak badu zati irrazional bat, eta beste bat, logikoa. Zientifikoa izateko teoria batek suzko frogak behar du, hau da: toki batean eta garai batean egia dena egia da edonon eta edonoiz, lehengo toki eta garai horretako baldintzak betetzen baldin badira. Neure teoriarekin (neuk *Teoria Auto-consistente de la Experiencia* diotsot) munduko edozein herri-tara joan daiteke. Ez zara ez zapaltzailea ez zapaldua izango inoren begietan. Eta hori ez da gutxi. Hizkuntzen teorian, 10. kilometroan egia dena 24.ean gezur bihurtzen bada, gaizki gabilta. Horri lotuta, neure galdera hau da: nola ez du balo-

ratzen hori, ekarpen zientifikoa gisa, hizkuntzaren arazoa erdigunean jartzen duen Euskal Herriak? Nola daiteke Mexiko edo Ekuadorreko herrietara eraman eta eurek ezagutzea, onartzea, eta hemen, ordea, ez? Nola daiteke, ez neuri, ezpada planteamenduari merezi duen zentralitatea ez ematea?

Bertako erakunde ofizialek baztertua sumatzen duzu zeure burua beharbada.

Nik neurea egin dut. Nire lana hor dago, agian beste garai baterako. Ni neu lasai nago orain arte egindakoarekin. Baina, dena den, egin dudanetik egin ez dudanetara beste pertsona batzuek egin behar duten tartea kezkatu egiten nau. Neurea nagoen tokitik egiten dut, noski, baina ez da bigarren mailako konponbidea ofiziala denaren zerbitzuan ofiziala ez dabilenetan. Esan bezala, ez baita Euskal Herrirako teoria: teoria unibertsala da. Hizkuntza guztiek bizirauteko aukera daukatela jakinarazteko teoria eskaintzen dugu, interpretazio berria. Baina lan horrek baditu beste sozializazio batzuk, orain arte gauzatu ez direnak.

Zer behar du hizkuntza batek bizi ahal izateko?

Gaur egun onartuta dago gaixotasun guztiak psikosomatikoak direla. Hots, ez dugu pentsatu behar gorputz batzuk hobeto prestatu daudela beste batzuk baino. Baldintza fisikoei eragiten dieten egoera animikoak daudela pentsatu behar dugu. Hizkuntzekin beste horrenbeste gertatzen da. Are gehiago, haratago ere badoazela esango nuke nik. Hizkuntzak metafisikoak dira. Lengoaia

gorputzaren bidez materializatzen dugu. Nire hitzak edo nire doinuak irten aurretik, badago ikus ez daitekeen zerbait eta hori nire pentsamendua da. Hizkuntzaren gaien kausatzat jo ditugu ondorioak. Hizkuntza bat galtzen bada edota indartsu badabil, horrek ez du zerikusirik lurraldearekin. Euskara Getxon galtzen bada, lehenago zerbait gertatu zaio hizkuntzari. Eta zer da hori? Zeintzuek adierazten digute hizkuntza bat osasuntsu dabilen ala ez? Funtzioek, hizkuntzaren funtzioek.

"Hizkuntza guztiek bizirauteko aukera daukatela jakinarazteko teoria eskaintzen dugu, interpretazio berria."

Nik, neure teoria eraikitzen dudanean, hizkuntza baten funtzioei ematen diet garrantzia. Nola gorpuztu hizkuntza bat? Funtzioak ematen dizkiogu, eta denborak gorpuztea dakar. Bere lurraldean atzera egiten ari den hizkuntza bat hartzen badugu, ulertu behar dugu bere funtzioak ahultzten ari direla. Eta auzia funtzioen ikuspegitik ulertzen dugun momentuan, orduantxe konturatuko gara eleaniztasuna bateragarria dela lurralde-homogeneotasunarekin. Hortik sortzen da nik planteatzen dudana kolinguismo kontzeptua. Kolinguismoa ez da halako *apartheid* komun bat.

Orduan, zure iritziz, bi hizkuntza lurralde edo espazio berean bizi daitezke elkarri trabarik egin gabe. Ematen du hor kontradikzio bat dagoela.

Kontradikzio bat dagoela diozu, baina kontradikzio hori oso emankorra da. Finlandiera eta suediera hartzen badituzu, ikusiko duzu administrazioaren elebitasunak populazioaren elebakartasuna bermatzen duela; hau da, administrazioaren elebitasuna bateren edo besteren erabileraren zerbitzuan dago. Egungo egoera oso ideologikoa da, hizkuntzak planteamendu politikoen menpe jarri baitira, hizkuntza jakin baten bidez eraiki diren estatuen planteamendu politikoen menpe. Hizkuntzekiko jarrera erabat buru-hankarik gabekoa izatera iritsi da.

"Egungo egoera oso ideologikoa da, hizkuntzak planteamendu politikoen menpe jarri baitira, hizkuntza jakin baten bidez eraiki diren estatuen planteamendu politikoen menpe."

Euskarak, berriz, badauka hiztun-komunitate bat eta badauka lurralde bat. Zeinek izan beharko luke euskararen lurraldea?

Horren gaineko azalpenak *Márgenes de Encuentro* liburuan ditut emanak. Nola azaldu hemen? Zuk esaten didazu hizkuntza batek lurralde bat behar duela. Bai, baina lehenik eta behin esan dugu edozein hizkuntzak, bizirik egoteko, funtzioak behar dituela. Nik ez nuke esango euskarak lurraldetasuna behar duela eta kito. Esan dezakegu hizkuntzak lurra edo lurraldetasuna behar duela, eta lurra zerua behar duela. Eta ura zerutik dator. Zer ulertarazi nahi dut? Lehen adierazi dudana moduan, hizkuntzak metafisikoak dira. Ezin diogu geure buruari horizonte fisiko bat proposatu, lurpean geldituko baikara. Niri hizkuntz planteamenduak, instituzionalak zein instituzionalak ez direnak, klaustrofobia sortarazten dit. Indigenak askoz ere eskuzabalagoak dira, balio metafisikoa ematen baitiote hizkuntzari. Ez dute euren sabaia bakarrik lurrean jartzen, ongi baitakite, hori eginez gero lurpean egongo liritekeela.

Ados, baina gaur egun euskararen lurraldean hainbat egoera juridiko-administratibo daukagu. Eta, nire ustez, egoera desberdinok eragin desberdinak dakartzkie funtzioei. Argi dirudi administrazioan, arlo

profesionalean eta abarretan funtzioek harreman estua daukatela hizkuntzaren egoera legalarekin.

Horri erantzun ahal izateko, esan behar dut nik neure teoria hipotekarik gabe eraikitzen dudala. Zergatik? Nire bidaian nonahi topa daitekeelako heriotza. Bai, heriotza. Espainiar kutsuko heziketa ideologiko batetik nator ni eta, beraz, badaukat euskal kutsuko heziketa ideologiko batekin bat ez egiteko beharra. "Dena aberriaren alde" leloaren aterkipean geratzen denak ez du inoiz ere nire teoriaren hedatzailea izaterik izango. Lelo horren izenean bizitzaren aurkako gauza ugari egiten baitira. "Dena bizitzaren alde" lelotik, berriz, aberria zer den, lurraldetasuna zer den eta mundu honetan bizi garenok non gabiltzan ikus dezakegu. Horrexegatik, lurraldetasunari buruz mintzo garenean, nik hizkuntzen arloan beste pertsona askok ikusten ez dituzten hainbat alderdi, hainbat adar, ikusten ditut beti. Eta hor ez dut amore eman nahi. Gauzak inpartzialtasunetik ikustea ez da batere erraza, eta horra zer edo zer ekar dezakedalakoan nago. Eta zer edo zer ekar dezaket, interes handieneko futbol-partida epaitu behar duen epailea bezalaxe, prozesu batetik pasatu naizelako nagoen tokiraino iritsi ahal izateko.

Hizkuntza-normalizazioari gagozkiola, *Un futuro para nuestro pasado* liburuan agerturiko teoriak motibazio-ezagutza-erabilera hirukotean zuen oinarri. Teoria denez, baliagarria zen lehen, eta bada gaur egun, noski. Baina agerian dago faktore horiek ez direla orain dela hogeituro berdinak. Nola ikusten duzu egun euskara normalizazio prozesuaren barruan?

Bai, aldaketa nabarmenak izan dira. Har dezagun, esateko, motibazioa. Modu kuantitatiboan eta kualitatiboan aldatu da. Zehatzago adierazteko, aurrekoak besteko indarra daukan beste motibazio bat ez da ontzira sartu. Aurrekoa desagertzen zen neurrian beste bat sartu da, bai, baina ontzia indar gutxiko erregaia-ekin bete da. Zergatik? Motibazioak, ezagutzak eta erabilerak, gure teoriaren arabera, badituzte bi iturri: naturala eta kulturala. Batetik, uste dut higidura handia izan dela naturalean. Higidura hori familia-transmisioetik dator. Familia-transmisioak neurri handi batean porrot egin duenez, haurrek edo gazteek jasotzen duten hizkuntza eredu ahulduta dago. Argi eduki behar dugu porrot egiten duena ez dela euskararen familia-transmisioa, familia-transmisioa bera baizik. Gaur egun hizkuntzen transmisioa telebistaren bidez gauzatzen da, familiaren bidez barik. Eta, argi dagoenez, telebistaren bidez ikasitako hizkuntzak ez du familiaren bidez ikasitakoak dakarren motibazio bera sortzen, familiaren esparruan ikasitakoak alde afektiboari eusten baitio. Bestetik, iturri kulturala daukagu. Eta iturri hau ere ahuldu da. Gaurko diskurtsoa egokiagoa da, nik uste, baina ez da sozializatu. Batetik, ez du alde ideologikoa alde batera uzterik izan eta, bestetik, lotuago dago instituzionalari. Nora eraman gaitzake aldaketa honek? Hori ez dakigu oraindik.

Zer ekarri ahal dio euskarari aro digitalak?

Nire aburuz, alde egin beharra daukagu ikuspuntu apokaliptiko orotik. Kontua ez da, Internet ingelesaren menpe dagoenez jai daukagula esatea. Kontua beste honako hau dugu: gure hizkuntzak bizitzeko behar dituen funtzioak betetzen baldin baditu, ingelesa jakinda ingelesdunak eurak baino egoera hobean izango gara. Bistan da elebidunak edo eleaniztunak elebakarrak baino aukera gehiago izan dezakeela.

Lutxo Egia
Kazetaria

ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERANTZ

Hezkuntza Sistemak bere gain hartu behar ditu gaur egungo gizarte irekiagoan ditugun komunikazio eta truke eskakizunek sorturiko premiak, eta euroi erantzuten saiatu. Horrek ikasleen curriculumean atzerriko hizkuntza bat izatea justifikatzen du. Hala ere, badirudi Hezkuntza Sistema berria egituratuta dagoen bezala, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan atzerriko hizkuntza ikasten hasteak ez duela bermatzen behar besteko jabekuntzarik. Hortaz, 95-96 ikasturtean Hezkuntza Sailak ingelesaren irakaskuntzari bultzada berri bat ematea erabaki zuen, eleaniztasun saiakuntza proiektuak abian jartzen.

Lehenengo saiakuntza honetan parte hartzeko interesa erakutsi zutenen artean hogeitaz hamar publiko aukeratu ziren, euren proiektua ondoren azaltzen diren hiru eremuotariko batean garatzeko:

1. Ingelesaren **hastapen goiztiarra** lau urtetik zortzi urtera bitartean; 13 ikastetxek jorratzen zuten euren proiektua eremu honetan.
2. Zortzi urtetik hamabi urtera bitartean, hau da, **Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan, curriculumeko zenbait eduki atzerriko hizkuntzan** ikastea. Hiru ikastetxek aukeratu zuten saiakuntzarako esparru hau garatzea eta horietariko bakoitzak erabaki zuen zein arlo landuko zuen: Ingurunearen Ezaguera, Heziketa Fisikoa edota Arte Hezkuntza.
3. **Curriculumeko arloak atzerriko hizkuntzan lantzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**, hau da, hamabi urtetik hamaseira bitartean. Lau ikastetxe bildu ziren saiakuntza honetara.

Hezkuntza Sailak eremu bakoitzeko aholkulari bana izendatu zuen materialen prestakuntzaz eta ikastetxeen arteko koordinazioaz arduratzeko.

“Gurasoek oso ondo baloratzen dute seme-alabek txikitatik aukera izatea hirugarren hizkuntza ikasteko”

Aipatzekoa da deialdi honek arrakasta handia izan zuela, 100 ikastetxe baino gehiago aurkeztu ziren-eta. Handik aurrera ikastetxe asko eta asko hasi dira era honetako lana egiten. Proiektu gehienak Haur Hezkuntzan lan egiteko aurkeztu ziren, eta ondoren azaltzen diren aspektuetan zuten oinarria.

Zerk bultzatzen du ikastetxea esperientzia hauetan parte hartzera?

Arrazoi asko dauden arren, batzuk aipatzekotan, esan dezakegu batetik, eskolak betetzen duen funtzioetariko bat ikasleen premiei eta gabeziei erantzun egokia ematea dela. Alde horretatik, gutxiengo batek eskolatik kanpo dituen baliabideak guztion esku ipintzea litzateke motibazioa, kasurako ingeleseko eskolak hartzea edota atzerrian egonaldiak egitea hiz-

kuntza sakonago ikasteko. Bestetik, gurasoek ere oso ondo hartzen dute proiektua, gerora begira ingelesaren garrantzia gizaratean argi eta garbi ikusten baitute eta oso ondo baloratzen dutelako haien seme-alabek txikitatik aukera izatea hirugarren hizkuntza ikasteko.

Zer egiten dute ikasleek?

Ikasleek ingelesez lantzen dituzte ikasgaiak eta edukiak, hots, eskolako ekintzak ingelesaren bidez gauzatzen dituzte. Helbururik garrantzitsuenetarikoak ikasleengan motibazioa piztea eta jarrera positiboak garatzea da. Haur Hezkuntzako ikasgeletan errepikatzen diren ekintzen bidez (agurrak, ardurak banatzea, eginkizun zehatzak...) ingeleseko irakaslea sartzten denean, ikasleek naturaltasun osoz erantzuten dute; egoera naturalak eta oso ezagunak direnez ziur eta lasai sentitzen dira eta hizkuntza berriarenganako hurbilpen naturala egiten dute: zenbat eta seguruago egon errazago baneratzten dituzte ikasgai berriak.

Irakasleak: nortzuk dira, nola egiten dute lan, zein bitartekorekin...?

Irakasle guztiak ingeleseko espezialistak dira, hala ere, haien gaitasun komunikatiboak areagotzeko Ingalaterran bertan hilabete osoko egonaldiak egiteko aukera eman zaie, bi alditan, ikastaroak egiteko.

Eguneroko lanari dagokionez esan beharra dago oso garrantzitsua dela irakasle hauek Haur Hezkuntzako tutoreekin koordinatuta egotea, umeen erreferentziak ezagutzea, errespetatzea eta aprobetxatzea ezinbestekoa baita hizkuntza lantzeko. Haurrek hirugarren hizkuntza era naturalean bereganatu ahal izateko egiaztatu behar dute ingeleseko komunikatze eta gauzak egiteko hizkuntza dela, euskara eta gaztelania bezalaxe. Hori lortze aldera ingeleseko irakaslea jolaslekuan, pasabideetan, gelan... ingelesez mintzatzen da beti, baina oso egoera zehatzetatik kanpo ez du espero inondik inora umeek ingelesez egitea; are gehiago, hirugarren hizkuntzarekiko jarrera positiboak garatzeko ezinbestekoa da haurrek darabilten hizkuntzarekiko errespetua azaltzea; horrela, irakasleak beti ulertuko du haurrak esaten duena eta bere helburua umeek ulermen estrategiak garatzea izango da.

Ikasturte honetan Hezkuntza Sailak esperientzia zabaltzea erabaki du, eta horrela, aurtan 184 ikastetxek parte hartuko dute. Aholkularitzarako, koordinaziorako eta materialen ekoizpenerako sei irakaslez osatutako taldea ari da lanean, seiak ere hasierako saiakuntzan trebatutakoak, eta horietariko bat egun osoko dedikazioaz.

Gerora begira

Oso esperientzia aberasgarritzat jotzen dute irakasleek, baina eremu berriak jorratzen diren guztietan bezalaxe, dudak, kezak eta zailtasunak azaltzen dituzte: alde batetik, eskolak hizkuntzekiko duen planteamendua aldatu beharra ikusten dute; eta bestetik, Haur Hezkuntzan hasitako lanari jarraipen egokia ematekotan artikularen hasieran aipatutako lan eremu batetik bestera pasatzeko bideak aztertu beharra azpimarratzen dute; hau da, hizkuntzarekiko hurbilpena egindakoan curriculumeko zenbait eduki ingelesez emateko aukerak aztertzen ari dira.


Esmeralda Alonso

CEI-IDCko atzerriko hizkuntzetako teknikaria

Bidaide, gogaide

Gehienontzat iritsi da urte osoko nekeak eta lanak albo batera laga eta merezitako atsedena hartzeko ordua. Beharbada, aspaldian buruan jira-biraka izan duzuen bidaia prestatzen arituko zarete: leku berrien gaineko informazioa aurkitu eta irakurtzen, nora joan eta zer ikusi aukeratzeko, eraman beharreko gauzak eskuratzen... Bidaia handi edo txiki, bidaia bera da garrantzitsuena; eta bueltan, arropa zikinaz gain, beti ekarriko ditugu motxilan espe-rientzia eta bizipen berriak. Beste batzuek ez duzue horrelako aukerarik izango, baina, horrelako ametsak bai ziu-raski, eta ametsak dirauten artean eutsi, aurten ez bada hurrengoan izango da-eta.

Oraingoan, munduan zehar ibilitako lau lagun iritzi, istorio edota gogoetak ekarri dizkizuegu, entretenigarri eta baliagarri izango zaizkizuelakoan.



Ramon Olasagasti, Berrobi, 1972, mendizalea, Hiru pausu hiru norabide espedizioeko partaide. **Mendi eta bidaien gaineko Egunkariko Mundu Mira** gehigarriko arduraduna.

GALANITOKO HAUR MASAIL-GORRIAK

Kautokeinora iristeko irrikitan ginen. Etxekoan eta lagunak eskutitz, musu, besarkada eta hitz bero ugari espero genituen bertako posta bulegoan. Bi hilabete eta erdi pasa ziren Oslotik abiatu ginela, eta sei espediziokideok gogo biziz ginen etxeko berriak hartzeko. Horregatik amesten genuen hainbeste Kautokeinorekin. Laponiako bihotzean dago Kautokeino, sami herriaren gune nagusietako bat da, nahiz eta 3.000 lagun eskas besterik ez diren bizi bertan. Egia esan, ez da harriztekoa, bizi baldintzak gogorrak baitira han: elurra urteko zazpi-zortzi hilabetetan, -30°ko tenperaturak batez beste, Lekeitiotik Hondarribirainoko distantziak herri batetik bestera. Gogorra da han bizitzea.

Kautokeinora iritsi baino lehen, ordea, Galanito ezagutu nahi genuen, Kautokeino ondoan dagoen herrixka txiki bat. Otsailaren 4an, gu Oslo ondoko eskola batera iritsi ginen bezperan, -55° egin zituen Galaniton, mende osoko hotzik handiena Norvegian. Egunkari guztietako azaleko argazkietan haur batzuk agertzen ziren termometroa harro erakusten, masailak gorri-gorri zituztela. Harrezkero hortxe ibili ginen, Galanito gora eta Galanito behera, iritsiko ote ginen geure buruari galdezka. Izan ere, zeharkaldia abiatu berritan –otsailaren 2an hasi ginen eskiatzen Oslotik– artean oso urrun ikusten ziren Kautokeino eta Galanito. Nordkappen edo Ipar lurmuturrean amaitu nahi genuen zeharkaldia, 2.000 kilometro iparralderago; horregatik, buruari itzuri egiteko komeni zen gertuagoko jomugak ezartzea, eta horietako bat zen Galanito.

Galanitora iristean, etxe bakar bat eta egurrentzat hiruzpalau korta baino ez genituen topatu, abandonuaren hatzaparretan horiek ere. Herri txikia zela, bai, bagenekien, baina ez genuen horrelako bakardade zuririk espero. Etxe bakarrean atea jo genuen, baina bestaldetik ez zuen inork erantzun; tximiniatik

ere ez zen kerik ateratzen eta hori ez zen batere ohikoa negu gordinen. Halako batean, ordea, gizonezko bat ikusi genuen leihotik desafioka eta zeharo izututa, eskuak jasota alde egiteko eskatuz. Gu ere izutu egin ginen aurreneko momentuan; gero, gizona bere onera ekartzen saiatu ginen, baina alferrik, seguru asko ez zuen ingelesez jakingo, eta gehiago izutzea besterik ez genuen lortuko. Gizonezkoa trantze hartan ikusirik, ez egitekoren bat egin baino lehen –ehiztariak dira gehien-tsuenak Laponian eta eskopeta ez zuen urrun ibiliko–, ospa egitea erabaki genuen.

Teilatua erdi eroritako txabola zahar batean egin genuen lo gau hartan. Goizeko lehen argi printzek baino lehenago, teila-tutik sartzen zen elurak iratzarri ninduen, eta ume masail-gorri haien irudia etorri zitzaidan burura, guztiz esnatu baino lehen, ametsak eta errealtatea nahasten diren tarte labur horretan. Orduan konturatu nintzen gure ametsetako herrixka hura, haur masail-gorrien Galanito hura, gorde nahi zuela nire oroimenak gogoan, eta ez gizon izua bizi zen etxe bakartia. Izan ere, sarritan, ametsak, amets diren bitartean dira eder, eta errealtate bihurtzean zapuztu egiten dira.

Amia Elosgi, Tolosa, 1966, Turkiatik Birmaniara joan zen bizikletaz Esther Mugerzarekin batera. Bidaiak urte bete iraun zuen, 1994ko udazkenetik 1995eko udazkenera, eta Kurdistan, Iran, Balutxistan, Pakistan, Hunza, Baltistan, Punjab, India, Nepal, Tibet eta Txina igaro behar izan zituzten Birmaniara heltzeko, guztira 10.000 km inguru.

PAKETE EXOTIKOA

Ion gustura atera da paketea erosita. Erakargarria zirudien. Zabala. Luzea. Betea. Iraupen luzekoa. Koloretsua. Alai. Bi pertsonendako zen. Eta hori atsegin zuen bereziki. Marisarekin partekatuko zuen. Aspaldian ez zion Marisari horrelako oparirik egin, eta paketearen berri jakitean jarriko zuen aurpegia irudikatze soilarekin, lerdea zeriola jarri zen Ion. Exotikoa zela erran zion dendariak gainera. Eta horrek kutixia ukitua



zemaion erositakoari. Sakela hustu samar geratu zitzaion, hori bai; lanean hasi zenetik hilero-hilero pixkanaka aurreztutako sosa guztiak bat-batean xahutu zituen pakete hura erosteko. Garestitxo iruditu zitzaion, alajaina! Baina saltzailea konfiantzazkoa iruditu, eta ez zuen zalantzarik izan. Exotikoa zen, beraz. Erakargarria. Bitxia. Berezia. Paregabea. Inoiz ikusi gabea. Lasaia. Ez zela damutuko errepikatu zion behin eta berriz saltzaileak. Merezi zuela. Zertarako zuen sosa, bertzenaz, gustuko gauzetan xahutze-ko ez bazen! Ez zen oroitzen paketearen helmuga zein zen; izen arraroren bat aipatu zion saltzaileak, baina berdin zion, paketea berea zen jada, barruan zeraman guztiarekin.

Hegaldia irudikatu zuen, VIP edo *very important person*-tzat jo zuen bere burua une batez. Eta lur muturrez zipriztindutako itsaso eremua; lurra eta ura, ura eta lurra bat eginik, desioaren itsaso lizuna. Eta hondartza amaigabeak. Eta emakumeak erdi biluzik. Eta... ez, ez zuen horrelako burutaziorik izan behar. Bera ezkon- duta zegoen eta ez zen zilegi horrelako gogoetak izatea. Baina, bai, hala irudikatu zuen.

Paketean guzti-guztia zegoen barne. Ez zuten sukaldean aritu beharrik izaneren, ez eta merkatura joan beharrik ere. Eta jakina, etxean aspiradora pasatu beharrik ere ez. “Hori –pentsatu zuen harro– nik neronek egiten baitut larunbatero”. Paketea poltsan sartuta zeraman, gutunazal batean bilduta, tentuz tolestuta gainontze-ko erosketekin batera: porruak, patatak, esnea, haragia, galtzer- diak, arraina, egunkaria... Hamaika zorro zeramatzen, baina Ionek bakarra zuen buruan. A zer nolako ezustekoa eman behar zion Marisari. Baina, bat-batean, zalantzak asaldatu zuen Ion. Eta Marisak gustuko ez bazuen? Eta itzultzeko erraten bazion?

Kale kantoiari buelta eman eta etxerako azken urratsak emateari ekin zion. Ohi bezala, ostatuko kristalean itsatsitako txartelak irakurtzen hasi zen, ikastaroak, kontzertuak...

“Gu lasai bizi ginen mendebaldeko gizon zuria gurera agertu zen arte. Handinahikeriaz azaldu zen, harroputz, diruarekin guztia erosteko prest; baita gure nortasuna ere, trukean, ustez hoberena den bere kultura eta ohiturak inposatuz. Eskatu eta eskatu egiten zuen: bere herrian bezalako ostatuak, etxean bezalako janaria, garagardoa, ardoa, dutxa beroa... guk ez genuen horrelako deus, baina zoriotsu ginen gure erreka, baso, herrixka, hondartza eta lurrak ematen zigunarekin. Egunero eskerrak ematen genizkion eguzki amandreari bizi ginelako, bakean eta pozik bizi ginelako. Gizon zuria modu lotsamangarrian jantzita agertu zen, zangoeta-ko ileak bistan; emakumeak ere ia arroparik gabe. Zergatik ez zituen gure ohiturak errespetatzen? Zergatik eskatzen zuen hain- beste? Guttiagotasunez tratatzen gintuen, mespretxuz, axolagabe-keriaz, errespeturik gabe. Gu berarentzat hain gutti baginen, zergatik zetorren hona?”

Gaur gizon zuriak bere ohiturak, usadioak, hizkuntza, elikadura, erlijioa, jantzeko era inposatu dizkigu. Gaur, gure herrian gizon

zuriaren menpeko gara, bere zerbitzari, morroi, emagalduta, eskla- bu. Turismoak XX. mendeko esklabutza eragin du. Halere, beso zabalik hartuko zaitugu.”

Nauru uharteko nauruarra

Ion tripak nahasita iritsi zen etxe atarira. Erositako pakete prezia- tuan Nauru uhartera jartzen zuen. Egia erran, saltzaileari ez zion galdetu ere egin non zegoen. Azken batean, Nauru, Martinika, Mikronesia edo Madagaskar izan, berdin zion. Hori pentsatze hutsarekin botagurea etorri zitzaion. Goragalea. Atarira sartu eta eguerdian jandako langostino eta solomilloa bota zituen Pertiako alfonbra dotorearen gainean, alboetako marmolezko hormak zipriztinduz.

Felipe Uriarte, Pasaia, 1944, Everesteko Tximist 1974 espedi- zioako partaide izan zen. Mendizale ezagun honek Europa, Amerika, Afrika eta Asiako hainbat eta hainbat mendi igo ditu. Hitzaldi eta ikusentzunezko ugari eman ditu (300etik gora), eta mendi eta bidaiari buruzko artikulugile eta kolabora- tzaile izan da aldizkari, irrati, eta telebistan. Mendiak eta Herriak mendi gidarien elkarteko sortzailea eta zuzendaria da.

DON TITO

Gauak izarrez bete zuen zerua, eta inguruko mendietan bakarda- dea handiagotu egin zen. Harkaitzezko hormak koba moduko babesa eskaintzen zuen. Aterpe haren sakonean sua piztuta zego- en, eta keak atzera botarazten zizkigun buruak, eta begiak erdi itxita genituen, begi zirrikitutik elkari begiratzen genion. Don Tito, gure mandazaina, hitz egiten ari zen, bere gaztelania eder hartan, kolorez eta doinuaz jantzitako bere hizkuntza garbian.

Katamarca probintzian geunden, Argentinako ipar-mendebaldean, Ande Zentraletan, Txileko mugan. Atakama Basamortua deitzen diote lurralde horiei, bai Argentinan eta baita Txilen ere. Ipa- rraldean Jujui eta Salta, horien iparraldean Bolivia. Hegoaldean berriz, La Rioja eta San Juan probintziak. Inguru hauetan Andeek 6.000 metroko mendi gailurrez osatutako horma altxatzen dute Argentina eta Txile artean.

Mendi hauen artean zabaltzen diren mendi atakak aspalditik era- bili izan dira. Inkak Peru eta Boliviatik irten eta inguru horietatik igarotzen ziren, Ozeano Bareko ertzaren bila, bere Inperioa zabalduz. Oraindik ere haien aztarnak ikusgai dira edonon: alde batetik, bakardade zabal eta huts horretan sarri aurkitzen dira “pirkak”, haiek eraikitako hormak, txabolak egiteko edo huanako eta bikunaren ehizarako; bestetik, aldareak eta hilerriak sei mila metroan, mendi gailurretan, alegia; eta inken aztarnak ere badi- ra Don Tito eta Don Juanen aurpegiaren ñabarduretan eta beren hizkuntzaren zenbait hitz kitxutan.

Geroxeago, meategiak zabaltzen hasi zirela eta, gizakumeak korritu zuen desolazio hau, alderik alde. Komertzianteeak, kontra- bandistek, huanakozainek, jende libreak azken finean, mando-

-bideak margotu zituzten eremu latz hauetan. Urtero, neguko elurak eta haizeak ezabatzen zituzten bide arrastoak.


Laugarren gaua genuen harkaitzpe hartan, Katamarkako Ande bakartien bihotzean.

Bost egun lehenago, *El Quemadito* deitutako tokian bildu ginen Don Tito eta Don Juanekin, eta *Cazadero Grande* erreka gora, egun luze eta bero batean, orain geunden *Agua Calientes* honetara heldu ginen. *Cazadero Grande*-ko “quebradan” basoastoak, huanakoak, bikuñak eta ahateak ikusi genituen. *Pico del Cóndor*-pean mokau bat egiteko gelditu, eta kondor bati antzeman genion, han goian, lainoak baino gorago, hegan dotore.

Don Titok mate bat prestatu (“cebatu” esaten dute) eta Don Juani luzatu zion. Gu afalosteko menta-belar infusioa ari ginen edaten. Gorputza nekaturik sentitzen genuen eta aurpegia eguzkiak eta haizeak erreta. Hamabi ordu behar izan genituen *Cerro Agua Calientes*-era (5.400 m) joan-etorri bat egiteko. Eta hantxe ginen, Don Titoren kontu zaharrei adi. Une hartan emakume bakarti baten istorioa kontatzen ari zitzaigun. Ur beroa mateari gehitu, zurrupada txiki bat egin zion, eta guri begira jarraitu zuen:

“Emakumea bakar-bakarrik bizi zen Angostura esaten diogun tokian, ezagutzen dizue, bidea estutzen den toki hartan. Gaur egun errepedea handik igarotzen da, baina garai haietan lau egun behar ziren herritik, Fiambalatik, haraino heldu ahal izateko. Ortu txiki batetik zerbait ateratzen zuen, eta ahuntz talde polit bat zuen, besterik ez. Ahuntzak ziren bere elikadura eta konpainia bakarra. Udan haize lehorrak hauts itogarria harrotzen zuen; neguan, berriz, haizea zorrotza zen eta goizero izotz zuriz estaltzen zituen inguruak. Udazkeneko gau batean, neguaren atarian, puma gosetu batek hiru ahuntz akabatu eta jan zituen. Goizean, emakumea, bakardade haren erdian eserita, pumak egindako txikizioari so zegoen. Ganibeta txiki bat besterik ez zuen emakumeak. Ganibeta hartu eta pumak utzitako arrastoari jarraitu zion. Emakumea txikia eta argaltsua zen, baina ez zuen atsedetik hartzen, beti ere katua- ren atzetik. Laster odol arrasto txiki bat aurkitu zuen. Sarri gertatzen da. Pumak min hartu zuen oin batean, eta odol tanta batzuk utzi zituen lurlean. Emakumeak gau eta egunez ekin zion bideari. Angosturasetik Lago Negrora atera zen, handik Agua de Bikuñara, badakizue zein bide luzea den hura. Hautsa, hotza, beroa, bakardadea... Ganibeta eskuan, besterik ez zuen. Hirugarren egunean, puma ikusi zuen azkenean. Haizea lagun zuen. Pixkanaka pumari inguratu zitzaion. Bertan zegoen. Buztanetik heldu zion, eta bat, bi, hiru... hamaika aldiz sartu zion ganibeta lepondoan, bere lepo azpiko zainen bila. Akabatu zuenean, harri batean eseri zen arnasa hartu nahian. Gero, ganibeta oraindik eskuan zuelarrik, altxatu eta bere sarobeko bidea hartu zuen”.

Iribar bat zuen Don Titok ezpainetan. Mateari beste zurrupada geldo bat eman zion, eta sua bizkortu. Burua altxatu nuenean, haize bolada hotz batek aurpegian jo zidan. Artilezko txanoa jaitsi nuen, belarriak estaltzeko asmoz, eta izarrei begira gelditu nintzen.



Josu Iztueta, Tolosa, 1957, Nairobitarra autobus ezagunaren gidaria. Besteak beste, Hiru pausu hiru norabide espedizioan parte hartu du, Groenlandia eta Alaska eskiz zeharkatu, Nilo ibaia piraguaz jaitsi...

OPORRAK LASAI EGOTEKO AL DIRA ?

Batetik bestera ibili beharra, gizakia bera bezain historia zaharra da. Janari bila eta fruitu biltzen eman zituzten gure arbasoek milaka urte, gerora eta pixkanaka gizatalde gehienek nomada izateari utzi eta sedentario bihurtuz joan ziren.

Geroztik ere, mendeetan zehar munduan izan dira era guztietako ibilerak eta bidaiatzeko arrazoiak. Egun, berriz, batetik bestera mugitzea ohiko bihurtu da berriro, inoiz baino errazago eta azkarrago egin daiteke hori, batzuek astean zehar lanera joateko ehundaka kilometro egiten dituzte; beste batzuk, aldiz, lana aurkitu nahian ibiliko dira harantz eta honantz.

Uda sasoiari “barkazioak”

Opor kontu hori gauza berria da, nik txikitik ez nuen behintzat horrelakorik entzun. Lana besterik egiten ez zuten gurasoen seme-alabak izatea egokitu zaigu, gero zer egin erabakitzekeko pribilegioa izan dugun horietakoak beharbada, baina baliteke bakoitzak bide ezberdin bat aukeratzean okasio guztiak aprobetxatu ez izana... Honek, ordea, ez du atzera bueltarik eta iragana aldatu ezinean etorkizuneko lehen eguna biharkoa dela garbi asko gertatzen da.

Lanean madarikatzen aritu eta atsedetik gutxi, hori ikusten nuen nik 16 urterekin, lana egin eta ikasi, urrutian fruta biltzen ibili, gaueko erreleboan paper fabriketan egon, eta beste hainbat ogibide probatu ondoren... aspaldiko dilema buruan: lanerako bizi edo bizitzeko adina lan egin?

Zerbaitegatik esaten genuen eskolan nahiz lanean “barkazio”, “bakazio” esan beharrean, asko pentsatu gabe “vacación” esaten ari ginela baino tira...

Hiztegitxo hau gogora ekartzea ondo etorriko zaigu gauzak oso bestelakoak izan direla ohartzeko:

Sábado inglés: asteak 60 lan ordu, zazpi egunetatik igandea bakarrik libre, baina *sábado inglés* delakoari esker larunbat arratsaldeetan jai! Hura bai aurrerapena. 600 kotxearen garaiko kontua izango da hor nonbait.

Fin de semana: norbaitek ohiko bizilekuaz gain beste apartamentu edo pisuren bat baldin bazuen, horrela esaten zitzaion... findesemanatako omen daukate! Eta hara joateko automobila, noski, seiscientosa baino hobexegoa izaten zuten.

Beraneanteak: honela deitzen genien guk, kanpotik udapasa etortzen zirenei. Normalean kostaldera jotzen zuten, eta *beraneantea* izena “verano”-tik zetorrela berandutxo konturatu nintzen ni.

Oporrak: hauek dira gaur egun edonoren helburu. Langileen amets, ikasleen paradisu, gurasoen poza, seme-alaben ilusio, aitona-amonon etsipena... eta ni bezalakoena lana. Hogeitau urte dira besteen “oporrak” antolatzen hasi ginela, eta geroztik horrela ibili gara: munduan barrena beti.

Pentsa gauzak zenbat aldatu diren: “denboralibrea” edukitzeari “aisialdi” deitzen diogu orain, eta hori ere okupatzen saiatzen gara, edozein eratarik; minutu gutxi batzuk, egun pare bat, lau asteko oporraldia edo urtebeteko eszedentziari probetxu ateratzen saia gaitzeko. Pertsonak beste dira formulak, eta bizitza bat bakarra. Hortik atera kontuak! Ongi izan.

LA, LA, LA...!

Euskaraz behar beste ez dakigulako edo gaztelaniak gure aurrean gero eta esku handiagoa duela-ko, kontua da ustezko perpaus konpletiboz betetzen ditugula gure idazkiak, edo, hobeto esateko, -LA atzizkidun perpausaz betetzen ditugu. Ondorengo lerroetan, bada, esaldi trakets horietako batzuk euskara jatorrean ematen saiatuko gara. Ez da sailkapen zientifikoa, zerrendatxo bat baizik, eta ikusiko duzuenek, maila askotako arazoak nahasten dira, orriaren mugek agintzen baitute.

• Erlatibozko perpausak

Hauxe dugu akatsik ohikoena: erlatiboaren ordeaz, -LA konpletiboa erabiltzea.

*Zuzendari berri bat etorri zaigu oso jatorra **dela**.
Zuzendari berri bat etorri zaigu oso jatorra **dena**.
Zuzendari berria etorri zaigu, oso jatorra (bera).

• Ondoriozko perpausak

-LA atzizkiak ez du lekurik perpaus-mota hauetan.

*Hain da langilea, egunero berandu ateratzen **dela** bulegotik.
Hain da langilea, **ezen/non** egunero berandu ateratzen **baita/den** bulegotik.
Egunero berandu ateratzen **da** bulegotik, hain da langilea.

• -LA/-NIK

Ezezko perpausetan, -NIK atzizkia erabili beharrean, -LA idazten dugu.

*Ez dut uste txostena garaiz amaituko **dudala**.
Ez dut uste txostena garaiz amaituko **dudanik**.

• Baldintzazko perpausak

Ez dira oso ohikoak, baina inoiz gertatzen dira, batez ere, ikasleen artean.

*Zinegotziak esan du, iskanbila sortzen **badela**, alde egingo duela.
Zinegotziak esan du, iskanbila sortzen **bada**, alde egingo duela.

• Gerundioak

-LA(RIK) atzizkiak denborazko perpausak osatzen dira (entzuten ari zela, loak hartu zuen), baita modua adierazten dutenak ere (nora joan ez dakiela dago); ez du balio, ordea, erdarazko gerundio guztiak emateko.

*Langileak ikastaroetara joateko baimena eskatu zuen, ezezko erantzuna jaso **zuelarik**.
Langileak ikastaroetara joateko baimena eskatu zuen, baina ezetz erantzun zioten.

• Azalpenezko perpausak

Behin baino gehiagotan, zer edo zer agindu edo gomendatu ondoren, horren arrazoia azaltzen dugu. Horrelakoetan, ez lerratu gaztelaniaren moldeetara.

*Fitxatu dezagun azkar, berandu **dela!**

Fitxatu dezagun azkar, berandu **da eta!**

*Kontuz, eroriko **zarela!**

Kontuz, eroriko **zara eta!**/Kontuz, erori **gabe!**/Kontuz, jausi **barik!**

Antzera gertatu ohi da, harriduraren arrazoia adierazterakoan ere.

*Kontxo! Joateko ordua **dela!**

Kontxo! Joateko ordua **da eta!**

• Desafioak eta apustuak

Badirudi gaztelaniara makurtu garela, euskal esamoldeen kaltean.

*Asmatzen **ditudala** galdera guztiak!

Baietz galdera guztiak **asmatu!**

*Ez **nauzula** harrapatzen!

Ezetz harrapatu!

• Baietzak eta ezetzak

Baietzak eta ezetzak indarrez adierazi nahi ditugunean, gaztelaniaren eredura jotzen dugu maiz.

*Noski etorriko **dela!**

Etorriko ez da, bada!/Etorriko da, noski!/Etorriko da, etorriko denez!

• "Subjuntiboak"

Hauetan ere, -LA ugari ikusten da tokiz kanpo.

*Bihotz-bihotzez eskertzen dizut etorri **zarela**.

Bihotz-bihotzez eskertzen dizut etorri **izana**.

• Beste hainbat esamolde

Aldian behin, berriren bat sartzen zaigu atal honetan.

*Orain dela bi aste irakurri **nuela** gutun hori.

Orain dela bi aste irakurri **nuen** gutun hori.

Bi aste dira irakurri **nuela** gutun hori.

Joseba Lozano

HAEEko administrazioko hizkeraren arduraduna

Hitz-sorkuntzako uste ustelak (III)

Euskararen altxorreko hitzetara jo behar dugu, lehenengo eta behin, gure hizkuntzaren lexiko-beharrak asetzeko. Ondoren, bigarren mailako aukera gisa, inguruko hizkuntzetara joko dugu. Hirugarren bidea, ostera, hizkuntza klasikoetara jotzea da; gure ingurugiroan, latinera eta grekora batik bat. Hiru bide horiexek dira hitzak sortzeko modu arruntak munduko gainerako hizkuntzetan ere, eta hurrenkera horretan izan ere.

Lehen bideari jarraituz, euskaraz oso emankorra da hitz-elkartzea termino berriak sortzeko. Hitz elkartuak osagai bi izaten ditu (gutxitan hiru), eta, osagai dituen hitzen esanguratik abiatu arren, bestelako esanahia izaten du, hitzez hitzekoaz gain edo hitzez hitzekoa ez dena. Hauxe da batzuei ulertzea kostatzen zaiena, edota euskarari debekatzen diotena, erdarari aitortu arren: hitz berriaren esanahia eta hitz berriaren etimologiak iradokitzen duena ez direla gauza bera, edo ez daukatela gauza bera izan beharrik.

Etimologismoa

Gaitz honek, nahita edo nahi gabe, euskarari baliabideak murrizten dizkio. Uste ustela da hitzaren esanahia etimologiak (osagaiek) mugatzen dutela. Batzuetan hala da, adibidez, behi + zain = *behizain* (behiak zaintzen dituen). Hala ere, bestelako abelgorriak ere zaintzen ditu edo zaindu ditzaie behizainak: txahalak, zekorrak eta abar. Esne + dun = *esnedun* (esnea daukana). Esne-kartoa eskuetan daukana ez daukanarengandik bereizteko erabil dezakegu, baina normalagoa da, sartaldean, 'esne-saltzaile' esateko erabiltzea. Kamioi + zale = *kamioizale* (zaletasun hori daukana). Baina, Gipuzkoan eta, 'kamioi-gidari' esan nahi du. Areago, gehiago dira Euskal Herrian kamioizale 'kamioi-gidariak' kamioizale 'zaletasuna dutenak' baino, hitzak lehenengo esanahian agerrialdi gehiago ditu bigarrenen baino, azkoz ere; beraz, hitz horren esanahi normala eta lehena 'gidariarena' da, ez 'zalearena', etimoak etimo.

Etimologistek ez dute onartzen, edo kosta egiten zaie onartzea, etimologia jatorria eta osaera bilatzeko delat, ez esanahia jakite-

ko. Salbuespen bakarra onartzen omen dute: *igogailua* jais-teko ere badela. Egia da, gehienetan, esanahi etimologikoa **ere** egoten dela, baina beti ez da horrela gertatzen. Askotan, hitzaren etimologiak ez dauka zerikusirik esanahiarekin, urrun-urrunekoa ez bada. Adibidez, argi + bide = *argibide* (informazioa); ez da argitara doan bidea. Hau, hain argia dirudien arren, batzuek ez diote euskarari barkatzen, bai, ordea, gaztelaniari: *subsidiario* esatean ez du inork pentsatzen 'azpian eserita dagoena'.

Hain zuzen ere, etimologiazaleek euskal jatorriko hitzei begiratzen diete hitzez hitzeko esanahia, edo euskal jatorriko euskal hitzei* hartzen diete kontuan etimologia. Beste hizkuntzetan barkatuta egoteaz gain, erdal jatorriko euskal hitzei ez zaie horrelakorik kontuan hartzen. Esate baterako, *apezpiku*

(grekeratik latinaren bitartez hartua) hitzak jatorrizko hizkuntzan 'ikuskatzaile' (gr.: gain + begiratzaile) esan nahi zuen. Esan nahi **zuen**, bai; orain eta euskaraz, 'gotzain' esan nahi du eta, jatorriak jatorri eta etimologiak etimologia.

Honainokoa ulertu badugu, ados gaudeke etimologiak esanahia zehazteko ez digula balio. Baina teoriarik edo ustez ulertu eta ados xamar egon arren, praktikan, etimologistek euren jarraitzen dute. Esate baterako, *haragijale* haragia jaten duena edo jaten ari dena da, bai, elkarrizketa arruntan. Horrez gain, hala ere, animalien protoplasmatik ateratako elikagaiak janez bizi den landareaz ere esan dezakegu *haragijale*, beste hizkuntza batzuetan egiten den bezala. Are gehiago, *Carnivora* ordenako animaliak izendatzeko ere

balio digu hitzak, etimologiaren abstrakzioa egiteko gai bagara (ai, etimologistak!), nahiz eta abere horien ezaugarri nagusia haragia jatea ez den, masailak eta hortz-haginak hartarako sendo eta egokiak izatea baino. *Orojalea* ere, ez da dena jaten duena, ezta denetarik, askotarik edo zernahi jaten duena ere, landa-

reetatik nahiz animalietatik (bietatik) lortutako gaiez elikatzen (ahal) dena baizik, itxuraz etimologiak hura iradoki badezake ere.

Hitzek beren esanahiekin duten lotura arbitrarioa da, are gehiago terminoek dutena. Hitzaren formak (izendatzaileak) ez dauka berez esanahi hau edo bestea, hiztunen artean erabakitako esangura baizik. Gure arazoa da euskara asko daki-gula eta [haragijale = haragi + jale] ekuazioa hausteko gai ez garela edo, nabarmenegi ikusten dugunez, kosta egiten zaigula. Baina etimologiazalekeria okerreko bidea da, euskara haizeberritu beharrean, euskarari hegoak ebakitzen dizkion gaitza.

Jon Agirre Garai

HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko burua



* Euskal jatorriko hitz guztiak ez dira euskal hitzak: *izquierda* euskal jatorrikoa da baina ez da euskal hitza, esate baterako. Eta badaude euskal jatorrikoak ez diren euskal hitzak: *eliza* erdal (latin) jatorriko euskal hitza da, adibidez.

Telefono haritik ari garela

Telefonoa ezinbesteko tresna bihurtu zaigu gure lanean, gero eta gehiago erabiltzen dugu, bai informazioa eskatzeko, bai eskatutako informazioa emateko. Artikulu honen helburua ez da inolako araurik ematea, telefonoz hitz egiterakoan kontuan hartu beharreko nondik-norako edo joera batzuk azaltzea baizik, eta bide batez, gaztelaniaren eraginez-edo euskaraz egiten diren akats batzuk azaltzea.

Hemen jasoko ditugun esamoldeak ere ez dira hitzez hitz jarraitu beharrekoak, gogoratu monotonia ere aspergarria dela, eta azken batean bakoitzaren esku gelditzen dela, egoeraren arabera, modu batera edo bestera jokatzea.



ELKARRIZKETA-HASIERA. HASIERAKO AGURRA

Gutako gehienok, telefonoak jotzen duenean, *bai*, edo *bai, esan* erantzuteko ohitura daukagu. Horrela, sarri askotan, deitu duenak galderaren bat egin behar izaten du, telefonoaren bestaldean duena berari interesatzen zaiona den edo ez jakiteko.

*Badago Koldo?
*Hortik al dabil Koldo?
Hor al dago Koldo?
Koldo hor dago?

Zentralita eta horrelakoetan, deitzen duenak galdezka ibili behar ez izateko, eta erakundearen nortasuna indartzeko edo agerian uzteko, erakundea identifikatzea komeni da telefonoa hartzerakoan. Deitzaileari nora deitu duen egiaztatzeaz gain, herritarrak edo bezeroak harremana pertsonalagoa dela sentitzeko ere balio du. Deitu duenak zuzenean jakingo du norekin hitz egiten ari den. Agurra ere garrantzitsua da horrelakoetan, *egunon* edo horrelako agurren batekin harremanak pertsonalizatzeaz gain, hurbiltasuna lortu eta jarrera positiboa ere adierazten diogu herritarrari.

Euskalduntze Zerbitzua, bai, esan.
Euskalduntze Zerbitzua, egunon (arratsaldeon, gabon,...).
Batzuetan, eta lanpostuak edo lanpostuko betebeharrak hala eskatuz gero, komeni da telefonoa hartzen duenaren izena ere esatea.

Euskalduntze Zerbitzuko Begoña Beitia; egunon.
edo

Euskalduntze Zerbitzua. Begoña Beitia naiz; egunon (Begoña Beitiarekin ari zara).

Gure **lehen hitza euskaraz** egiten badugu, deitu digunari euskara erabiltzeko bidea ematen diogu.



ELKARRIZKETA

Hitz egitea bezain garrantzitsua da entzuten jakitea. Beraz, utzi hitz egiten solaskideari, ez eten, oso beharrezko ez badugu ikusten behintzat. Horrela, hariaren bestaldean dagoenak zer nahi duen jakingo dugu, eta ondorioz, egoerari egokitu gure jarduna.

Norbaitekin telefonoz ari garela, badira behin baino gehiagotan errepikatzen diren egoerak, ia beti formula jakin batzuekin konpontzen direnak: deia beste norbaiti pasatu, itxarroteko esan, norbait ez dagoela esan eta mezuren bat hartu,... Ikus ditzagun horietako batzuk.

X DEIA BESTE NORBAITI PASATZEKO

Dei bat beste norbaiti pasa behar baldin badiogu, komeni da solaskideari esatea zer zerbitzu, sail edo dena delakoarekin eta norekin jarriko dugun. Deia pasa aurretik solaskidea agurtzen badugu, hurbiltasun puntu hori areagotuko dugu herritarrarengan. Era berean, ziurtatu beharko dugu solaskidea pertsona egokiarekin jarriko dugula.

Itxaron pixka bat, mesedez, berehala jarriko zaitut zuzendariarekin.
Zaude pixka batean.

Noren partez, mesedez?
Noren partetik, mesedez?
Nork deitzen diola esango diot?

*Oraintxe jartzen zaitut zuzendariarekin.
Oraintxe jarriko zaitut zuzendariarekin.

X ITXAROTEKO ESKATZEKO

*Beste linea batetik hitz egiten dago.
Beste linea batetik hitz egiten ari da.
Telefonoz hitz egiten ari da. Itxaron nahi duzu?

X NORBAIT EZ DAGOELA ESATEKO

Une (memento) honetan ez dago, mezuren (enkargu, errekaduren) bat utzi nahi diozu?
Kanpoan da, (datorrenarako) mezuren bat-edo laga nahi diozu.
Sentitzen dut, baina une honetan ez dago!

*Bilduta dago.
Bilera batean dago, mezurik utzi nahi?



ELKARRIZKETAREN AMAIERA. AGURRAK

Elkarriketa amaitzeko herritarra agurtu, gogoratu bera dela gure bezeroa. Hona hemen esamolde batzuk:

Eskerrik asko deitzeagatik. Hurrengo arte!
Eskerrik asko deitzeagatik, eta arratsaldeon!
Mila esker (Esker mila)!

*Beste bat arte.
Hurrengora arte.

Eskerrik asko!
Ez horregatik!

Eskerrik asko!
Ez dago zergatik!

Eskerrik asko!
Ez da ezer ere!

Eskerrik asko!
Baita zuri ere!

Eskerrik asko!
Eskerrak zuri!

KONTUAN EDUKI BEHARREKO BESTE ZENBAIT GAUZA

• Irribarretsu baldin bagaude, solaskideak ere igarriko du telefonoz bestaldean gure jarrera positiboa dela.

• Hitz garrantzitsuak azpimarratu.

• Norbaitek zerbaitengatik kexatzeko deitzen badu, patxadaz hartu; ez jokatu zuri kontu eske ari balitzaizu bezala. Horrelakoetan, ez eten solaskideari, utzi barruak husten. Hala ere, ez dago zertan beti arrazoia eman bezeroari, bezeroaren lekuan jartzen saiatu bai, beharbada; baina, horregatik arrazoirik eman ez. Jarrera neutrala hartuko dugu, eta saiatuko gara inori errurik ez egozten. Hala ere, gure laguntza eskainiko diogu.

• Aldatu entonazioa eta elokuentzia, hau da, erritmoa (telefonoz aurrez aurre baino geldoago hitz egitea komeni da).

• Saihestu formulak, superlatiboak, termino teknikoak.

• Positiboak izaten saiatu beti, bai jarreran bai hizkuntzan (hizkuntza positiboa, argia eta zehatza).

*Ez nago oso ziur, baina baietz uste dut.
Baiezkoan nago. Baietz esango nuke. Baliteke horrela izatea.

*Ez nago ados zurekin.
Nire ustez honela eta horrela da.

*Arazo hori ez dagokigu guri.
Gai hori ...-ren ardura da.

*Ez arduratu, ez duzu inolako arazorik izango.
Egon lasai, gu arduratuko gara horretaz.

*Ez zenuke nahiko guk deitzea?
Nahi izanez gero guk deituko dizugu.

*Ez eskegi, berehala itzuliko naiz.
Itxaron piska bat, berehala naiz zurekin.

*Ez dago beste irtenbiderik.
Irtenbide bakarra da.

*Ez dut uste denbora asko emango duenik zurekin hitz egin arte.
Berehala izango da zurekin.

• Bestalde, normala da telefonoz hitz egiten ari garenean beste telefono zenbaki bat eman behar izatea. Gogoratu, horrelakoetan, bai nork berak esateko, bai telefonoz bestaldean daukagunari lana errazteko hobe dela zenbakiak banan-banan esatea: 945-783469 (bederatzi/lau/bost, zazpi/zortzi, hiru/lau, sei/bederatzi) eta ez, (bederatzi/lau/bost, hirurogeita hamazortzi, hogeita hamalau, hirurogeita bederatzi).

Telefonoarekin lotura daukaten hainbat hitz

Transferencia de llamadas = deiak batetik bestera pasatzea
Conferencia a tres = hiruk elkarrekin hitz egitea (hiruko elkarriketa)
Intercomunicación = interkomunikazioa
Llamada en espera = deia zain izatea
Captura de llamadas en otra línea = beste linea bateko deiak hartzea
Contestador en red en cada línea = sarean eta linea bakoitzean erantzungailua izatea
Desvío de llamadas = deiak desbideratzea
Llamada directa a cada línea = linea bakoitzera zuzenean deitzea



Telefono mezua hartzeko-emateko oharrak

Mezuren bat hartzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

- ✓ Solaskidearen izena
- ✓ Erakundearen izena
- ✓ Deia eguna eta ordua
- ✓ Zergatia, gaia
- ✓ Telefono zenbakia
- ✓ Solaskideari deitzeko ordurik onena.

Bukaeran mezua errepikatu edo laburtu dakioko solaskideari, hartu duguna zuzena dela baieztatzeko. Oharrak zuzen jaso ditugula baieztatu.

Enrike Gorrotxategi
HAEEko teknikaria

Gaur egun nahikoa al da Nafarroako Euskararen Legea?

1986an onartu zen Nafarroako Euskararen Legea, eztabaida ugariaren ostean. Eta 1994an, euskararen erabilera administrazioan arautzen duen Foru Dekretua. Legeari buruzko eztabaidek etengabe jarraitu dute arauak onartu ondoren. Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatzea izan da iskanbila eta kritika gehienen iturburu; baita legea osorik ez aplikatzea ere, legean bertan euskara “altxorra” dela eta “errespetu eta babes berezia” behar duela azpimarratu arren. Legearen helburuen artean aipatzen da “herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztu” behar dituela eta “euskararen berreskurapena eta garapena babestu” behar dituela. Euskaltzaleek salatzen dutenez, ordea, legea, hankamotza izateaz gain, ez da betetzen. Gainera, Euskararen Legea murrizteko asmoa azaldu dute UPNek eta PSNek. Eta, giro horretan, “berez zailak diren baldintzetan lan egitea ezina” egiten dutela argudiatuz, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko arduradunek dimisioa aurkeztu dute. Nafarroako Gobernua euskararen erabilera administrazioan arautzeko prestatzen ari den foru dekretua izan da dimisioaren arrazoi nagusia.

Momentu egokia da, beraz, Nafarroako Euskararen Legeaz gogoeta egiteko.



Carlos Cristobal PSNko Eskualde Politikako Idazkaria

Nafarroako Alderdi Sozialistaren iritziz, Euskararen Legeak –Nafarroako Parlamentuan 1986an gehiengo osoz onartua–, oinarrian, gaurkotasuna eta baliagarritasuna gordetzen ditu, eta Nafarroako hizkuntza aniztasunaren topaleku

izan daiteke eta izan behar du. Beraz, legearen aldaketari aurre egin behar bazaio, hizkuntza politikak sortutako arazozentzat beste irtenbiderik ez dagoenean izan behar du, eta beti ere, gutxiengoaren eskubideak eta legeak planteatutako printzipio nagusiak errespetatuz; printzipio horiek, hain zuzen, Espainiako Konstituziotik eta LORAFNAtik sortuak dira. Printzipio horien artean daude, besteak beste, euskararenganako errespetu eta babes berezia, euskararen koofizialtasuna gaztelaniarekin batera Nafarroako zonalde euskaldunetan, eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitatean lege tratamendu desberdina duten hizkuntza eremuen onarpena.

Nafarroako Gobernuak, lege horretan oinarrituta, azken 14 urteetan aplikatu duen hizkuntza politikari dagokionez, PSN-PSOEk bere kezka azaldu nahi du legearen eraginetako batzuk direla eta: zehazki esateko, gure komunitateko hiritar ez euskaldun batzuk administrazio publikoetako hainbat lanpostu lortzeko sortzen ari diren zenbait zailtasun edo oztopo, lanpostu horiek lortzeko euskara jakitea beharrezkoa ez denean. Era berean, arazoak sortzen dira araututako euskarazko irakaskuntza aplikatzean.

Horiez gain, oraindik konpondu gabeko arazoa dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoan. PSN-PSOEn iritziz, NUPen ez dira aplikatu behar Euskararen Legean hezkuntza ez unibertsitarioa arautzeko hartutako neurriak, eta beraz, gaia arautzeko araudi berri bat egin behar da.

PSN-PSOEk ez du uste arazo horiek guztiak konpontzeko Euskararen Legea aldatu behar denik. Aldaketak eginez gero, proposatutako aldaketek eztabaidan eta datuetan oinarrituta egon beharko dute; benetako arazoei beharrezko irtenbideak eskaintzeko izan behar dute, eta ez arazo berrien iturburu.

Sagrario Aleman Iruñako Arturo Campion euskaltegiko arduraduna

1985 inguruan Euskararen Legearen lehenengo zirriborro modukoa egin zen eta zirriborro horrek euskaldunen eta euskal taldeen kritika ugari jaso zituen. Zirriborro horren eta urtebete beranduago onartu zen legearen artean aldaketa handirik ez zen egin. Zirriborroan bi eremu bakarrik aipatzen ziren, euskalduna eta ez-euskalduna. Aurrerago, sortu ziren kritika eta eztabaidei aurre egiteko, eremu bat gehiago sartu zuten legean, eremu mistoa. Era berean, eremu euskalduna zerbait handitu zuten.

Aintzat hartu behar da zirriborroari egiten zitzaizkion antzeko kritikak egiten zitzaizkiola eta zaizkiola legeari berari. Azken batean, nafar guztiok ez ditugu eskubide berak Nafarroako toki guztietan, hizkuntza eremuen banaketaren ondorioz. Hori da Euskararen Legearen lehen akatsa, hizkuntza eremuen banaketa, oinarritzkoa behar lukeen berdintasunaren irizpidea ez baitu aintzat hartzen: eremu euskaldunetan nafarren %11 inguru bizi dira eta bertako biztanle gehienek eremu mistora joan behar dute zerbitzu asko eta asko jasotzeko, Iruñerriera; beraz, eremu euskalduneko biztanle askok ezin dituzte beren eskubide asko gauzatu.

Bestetik, legea ez da normalizazio lege bat. Ez du normalizazioa helburu eta orain arte ikusi denez, alderdi nagusien helburua ez da normalizazioa.

Legeak ukitzen dituen arlo bakarrak irakaskuntza eta administrazioa dira. Nafarroa hizkuntza eremuetan banatzeak berak badakar nafar gehienera eta Nafarroako toki gehienetan eskubideak ukatzea, euskara bai irakaskuntzan bai administrazioan erabiltzeko. Legea ez da nahikoa. Legea ez da nahikoa eta legea ez da betetzen.

Euskaltzaleen lorpenetako batzuk legearen zirrikietatik eta legeaz landa lortu dira. Administrazioak jartzen dituen oztopo guztien gaineratik, irakaskuntzan handitzen ari da D ereduaren eskakizuna –ez modu nahikoan, baina– eta berriz ere jendearen borondatearen arabera egin beharko dira aurrera-pausoak, bai legeak arautzen dituen arlotan, bai aipamen hutsa egiten duenetan, komunikabideak kasu, bai aipatu ere egiten ez duenetan, gobernua edo administrazioak ez baitute asko lagunduko. Herri ekimenaren eta presio sozialaren bidez aurreratu beharko dugu momentuz bederen. Izan ere, oraindik dena egiteko daukagu kasik.



Aingeru Epaltza

Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria eta idazlea

Bada iritzi bat normalean komunikabideetan agertzen ez dena eta Nafarroako euskaltzaleen artean pixka bat ahopeka baizik ibiltzen ez dena: ezin daiteke ukatu lege honek bertute batzuk izan dituela eta lege honi esker aitzinapauso batzuk eman direla Nafarroan euskarari dagokionez. Alde batetik, lege honi esker euskara administrazioan sartu da, lehenago ez bezala, gutxienez eremu euskaldunetan. Bertze alde batetik, euskarari ateak ireki dizkio irakaskuntzan, baina eremu euskaldunetan eta mistoan bakarrik.

Gero, gertatzen da legeak indarrean 15 urte bete dituela eta baloratu behar direla, ez bakarrik lorpenak, baita eskasiak eta hutsuneak ere; zeren garbi baitago eskasia nabarmenak ere izan dituela.

Alde batetik, administrazioan, legeak ez baitu aldarrikatzen euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan.

Azken batean ofizialtasunaren pean dagoen eremu bakarra eremu euskalduntzat hartzen dena da. Hortaz, ia-ia Nafarroako hiru euskaldunetarik bat ofizialtasun horretatik kanpo geratzen da. Gainera, biztanleriaren mugimenduak-eta nola doazen ikusita –Mendialdearen hustutzea eta Iruñerriaren hazkundea–, Nafarroako euskaldun gehienok euskara ofiziala ez den eremu batean biziko gara epe laburraren buruan. Horrek arazo nabarmenak sortuko ditu administrazioari begira, are gehiago kontuan hartzen bada, Iruñean edo Iruñerrian ez bizi arren, eremu euskaldunetan bizi diren euskaldun gehienak Iruñara etortzen direla, Iruña baita zerbitzu hiria Nafarroan.

Beraz, Nafarroan ez dago erabateko ofizialtasunik. Bada halako sasiofizialtasun mozorrotua, tokian tokiko botere politikoaren arabera garatzen dena eta foru administrazio zentrallean, Iruñean, orain arte ia tokirik izan ez duena. Guk ofizialtasunaren aitortpena Nafarroa osoan behar dugu, ez bakarrik eskualde batean.

Irakaskuntzari dagokionez, Nafarroako eremu handi bat –lurraldearen ia erdia, biztanleriaren heren bat– eremu ez-euskaldunetan da eta han ez dute euskarazko irakaskuntzarik eskuratzen ahal eredu publikoetan. Hori ere konpondu beharreko afera mingarria da, azken batean euskaldunon eta euskaltzaleon ikuspegitik jende hori –Erriberakoak, Tafalla aldekoak eta Lizarra aldeko zati handi batekoak– diskriminatua baitago. Gehienez jota euskara ikasgai dute, hala eskatuz gero.



Juan Cruz Alli

CDNko presidentea

Legea, printzipioz, marko egokia da; eta, gainera, euskararen sustapena ahalbidetu du, hezkuntzan batez ere. Legearen kontra daude euskararen alde edo kontra mutur batean eta bestean daudenak. Lege moderatua izan da eta euskara bultzatzeko politikak aurrera ateratzeko balio izan du, bai hezkuntzan, baita beste arlo batzuetan ere. Gaur egun euskararen irakaskuntzan inoiz izan ez duen potentzialtasuna du Nafarroan. Gainera, euskarazko ikastetxeen eskaera soziala hazten ari da.

Euskal abertzaleek asko kritikatu dute Nafarroa hizkuntza eremuetan banatzea, baina gatazka handiak saihesteko modu bakarra da. Garbi dago Nafarroako eremu batean ez dagoela euskararik duela urte askotatik eta bertakoek ez dutela jarrera abegikorrik euskararekiko. Hori horrela, euskararen koofizialtasunak kontrako jarrera eta gatazka ugari sortuko lituzke bertan. Eremu euskaldunetan eta mistoan euskara bultzatu egin da, baina eremu ez euskalduneko errealitatea hori da, eta bertako herritar ugari, euskararekin ez identifikatzeaz gain, jarrera intolerantea dute.

Hala ere, Nafarroako Euskararen Legeak oraindik garatu gabeko ahalmenak eta konpondu beharreko hutsuneak ere baditu. Esate baterako, lurralde banaketari dagokionez, eremu ez euskaldunetan dauden herri batzuek eremu mistoan egon behar lukete, Lumbier kasu. Bestetik, eremu ez euskalduneko hezkuntzan ez da aintzat hartzen euskarazko irakaskuntza ezta euskara ikasgai moduan irakastea ere. Baina, euskara ikasteko eskaera soziala dagoen neurrian, modu normalizatuan erantzun beharko litzaioke eskaera horri. Legea egokitu egin beharko litzateke errealitate sozial hori jaso eta aintzat hartzeko, bai sare publikoan, bai sare pribatuan.

Euskararen Legea berrikusteko PSNk aurkeztutako moziolari dagokionez, baiezkoa eman genion, baina desadostasun nabarmenak ditugu mozioko zenbait puntutan eta moziolari buruz badugu, izan, geure iritzia. Legearen balioa berrestearen alde gaude eta errebisatu egin behar dela uste dugu, baina ez murrizteko asmoz. Diskriminazioak saihestu behar direla? Ados. Baina diskriminazio positiboa ere aipatu behar dugu. Diskriminazioa UPNrentzat euskara mugatzea da eta guretzat, aldiz, kontrakoa. Mozioa onartu bagenuen, bere osotasunean, –eta ez puntuz puntu–, bozkatu behar zelako izan zen.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

Oharra: UPNri eta Fernando Pérez de Viñaspreiri (artean, Hizkuntz Politikarako zuzendaria) ere eskatu genien iritzia, baina ez zuten erantzun nahi izan.

HITZA, ARRAKASTAREN GILTZA (eta II)

Jendaurrean hitz egin behar eta arrakasta izan nahi duen batek egin behar dituenen eta ez dituenen berri zehatza agindu nuen, artikulua honen lehen atalean, bigarren atal honetarako. Amerikarren moduan –azkar eta labur– jardungo nuela ere agindu nuenez, has nadin, besterik gabe, agindutakoa betetzen.

Kontua, gutxi gorabehera, honelatsu izan ohi da: norbaitek hots egiten dizu telefonoz, eta galdetzen ea hitzalditxo bat emateko prest zeundekeen. Proposamen guztiei ezezkia emateko erabaki trinkoa hartua bazaude ere –bestela ere nahikoa itota zabilta eta–, beti dago ezetz esatea galerazten dizun kausaren bat: dela hotsegilea lehengusu duzula, dela erakunde ezinago jator eta –beraz– txiro batetik datorrela deia, dela horrelakoetan egoak hegoak jantzen dituela... Dena delako hitzaldi hori eman beharreko eguna urrun-bai-urrun ikustea ere izan ohi da, ez gutxitan, ezetzaren trinkotasuna baietzean urtzeko arrazoia.

Noiz edo noiz –nork ez du inoiz bolada txarrik izaten?– ezetz esaten hasten bazara, berriz, berehala “animatuko” zaitu telefonoz bestaldekoak: tira, tira, zer da, ba, hori zuretzat? Aidean egingo duzu eta! Badut lagun bat –idazle ezaguna–, hori esaten diotenean ezezko biribila ematen duena aspaldion, baina denok ez gara hain radikalak. Gaia izan ohi da gutxienezkoa: zuk zeuk ikusi! Antolatzaileek proposatu egiten dizute, kasurik onenean, gai posible bat, baina beste edozein ere har zenezake, nahi izanez gero. Kontua jardutea, denbora-tarte jakin bat betetzea da, antza denez, hamarretik hamaikatan.

Eta, tamalez, eguna, hain urrun zirudiena, etorri egiten da. Eta orduan konturatzen zara jendaurreko jardunaren lehen legea, lege nagusia, ez duzula bete. Hots, ez dakizula deus ere entzule izango dituzunei buruz. Hauxe baita erretorikaren arau nagusia, lege guztien ama, arau guztien araua: ezer ez dago berezkorik eta behin betikorik erretorikan, den-dena audientziaren araberakoa baita. Argudio jakin bat egoki dela diogunean, beraz, gure audientziarentzat egokia dela esan nahi dugu, bost axola logikaren arabera halamoduzkoa bada. Hizlariaren sinesgarritasuna ere, gainerako zer guztiak bezala, audientziaren pertzepzioaren araberakoa da, ez berezkoa.

Jendaurreko jardunetik erretorikara egin dugu jauzi, jendaurrean eta hitz hutsez arrakasta izateko bideak aztertzen dituen jakintza baino ez baita, azken batean, erretorika. Aristotelesekin zioen bezala, “persuasiorako behar diren zer guztiak egoki antolatzeke artea”. “Arrakasta izan”, “persuaditu”, “jendearengana iritsi”... sinonimotzat joko ditugu hemen, eta, genioen legez, hori izan ohi da, hamarretik hamaikatan, gure hizketa-ekintzen xedea.

Hitzezko gure jarduna –ahozko zein idatzizkoa–, berriz, ez da barne-mugarrik ez duen jario taigabea. Hizketa-ekintza bakoitza jardun-unitatetzat har dezakegu. “Diskurso”



edo “berbaldi” esaten zaio xede jakin bat lortzeko hasi-eta-buka propio antolatzen dugun jardun-puska horietako bakoitzari.

Berbaldia arrakastatsu izan dadin –bere xedea lortzeko modukoa izan dadin– lana egin beharra dago, latz, aldez aurretik. Lanak oro txukun egiteak ez du arrakasta segurtatzen. Lanetakoren bat egin gabe utziz gero, aldiz, ia segurua da porrota. Asko eta askotarikoak dira gaur egun berbaldiaren antolamenduaz arduratzen diren jakintzagaiak. Praktikotasunaren aldetik, ordea, “persuasioa” deritzona da, dudarik gabe, interesgarriena. Beste jakintzagaietan ez bezala, dirua –diru asko– egon ohi da jokoan, eta dirua jartzen dutenei –iragarleei, adibidez– ez zaie aski teoria hutsa. Arrakasta behar dute. Persuasioak, alde horretatik, psikologia sozialaren esparruko jakintzagai esperimentalak da.

Hala ere, berbaldiaren antolamenduaz diharduten jakintzagai gehien-gehienek, nola praktikoez hala teorikoez ere, erretorika klasikoaren zordun aitortzen dute beren burua. “Erretorika” usainez jaso zuen XX. mendeak tradizio erretorikoa. Mendearen erdialdetik hona, ordea, bere izen ona berreskuratzen ari da, ostera ere, erretorika. Funtzionaltasuna berreskuratzen duen heinean berreskuratze ere, apaingarri huts izateari utzi, eta berriro ere –hala egiten baitzen sorreran– berbaldiaren osotasunaz arduratzen den heinean.

Bada, erretorikak bost egiteko jartzen dizkio berbaldia prestatzen ari denari. Latin izenez izendatzen dira oraindik ere, baina jendaurrean agertu baino lehen derrigorrez bete beharreko etxekolana baino ez dira. Aipa ditzagun arin-arin (“arin” hitzaren zentzu bietan):

1) **Inventio.** Eman zaigun gaia dugu. Eta audientzia. Eta bai audientziak bai guk gai horri buruz aldez aurretik dugun uste, jakintza eta jarrerak. Zer lortu nahi dugun, hori lortu ahal izateko moduko argudioak inguratu beharko ditugu nondik edo handik. Aristoteles bera harrizko moduko teoria du, egiteko honi dagokionez, Andoni Egañak. Bertsolari txapeldunak dioenez, jendaurrean jorratu beharreko gaiari buruz den-dena jakinda bezain lasai has liteke gaia jorratzen hartaz deus ere ez dakiena. Txarrena, Egañaren arabera, tarteko egoera da: ez asko ez gutxi jakitea, alegia.

Txantxak txantxa, erants dezadan nik, neure aldetik, teknologia berriek arrisku nabarmena dakartela, begibistako onura asko eta askorekin batera, egiteko erretoriko honi dagokionez. Nahi eta behar baino informazio gehiago jartzen digute teknologik –Internetek, batez ere– eskura, instantean jarri ere. Argudioen pilaketa ez da, ordea, berbaldia, jardun nahasi eta zoroa baizik. Pentsako zenbait zutabegileren generoa gertuago dago bigarren horretatik berbalditik baino. Xederako behar ditugun argudioak ebaluatu eta sailkatu egin behar dira: zein den indartsuen, zein pattalen. Esan bezala, audientziaren arabera neurtu behar da argudioen indarra.

2) **Dispositio**. Izango dugun audientziaren aurrean gure xedea lortzeko egoki diren argudio horiek eskuraturik, komeni zaigun ordenean kokatu behar ditugu argudiook. Persuasioan asko ikertu da argudioen ordenaren garrantzia. Demagun, adibidez, Hondarribiko alardea dela gaia. Dokumentatu garenez, prest ditugu argudioak. Argudioon hurrenkera, ordea, aldatu egin beharko dugu audientziaren arabera. Parte hartu nahirik dabilzan emakumeen aurrean jardutekoak bagara, argudiorik indartsuenetik hasi beharko dugu, hasi orduko epeltzat jo ez gaitzaten. Izan ere, hala egin balezate deus gutxi egin ahal izango genuke handik aurrera. Emakumezko audientzia horren aurrean, beraz, gizonen eta emakumezkoen berezko berdintasun erabatekoaren argudiotik hasia komeniko zaigu. Aitzitik, emakumeek alardean parte hartzearen kontrakoan aurrean hitz egin behar badugu, hobe dugu argudio hori amaierarako gorde, audientziak etsaitzat har ez gaitzan hasieratik beretik. Tradizioaren indarra aipatuz ekin diezaiokegu, adibidez, kasu horretan.

3) **Elocutio**. Argudio egokiak ordena egokian paratzea ez da aski. Argudio horiek egoki formulatu ezean, porrot egin dezakegu. “Egoki”, esan dezadan argi eta garbi, ez da “dotore”, “indartsu” baizik. Erretorikaren hirugarren egiteko honetan txertatzen da poetika. Jardun erretorikoak bere praktikotasuna galdu zuenean, erretorika eskolako jardun antzu bihurtu zenean, elocutioak, formulazio dotore-apainen arteak, neurritz gorako garapena izan zuen, aurreko biak (inventio eta dispositio) oso-osorik janean. Horrexegatik bihurtu zen erretorika erretolika. XX. mendeko erretorika berriek erretorikaren egitasmoa bere osotasunean aintzat hartuz itzuli diote erretorikari bere baliagarritasuna.

Poesia, guk ulertzen dugun moduan, Hizkuntzaren esapide ohikoaren kontrako borroka etengabea da. Jarrera kontua, beraz. Gure xedea jendearengan emozioa eragitea bada, nekez lortuko dugu xede hori Hizkuntzak alde aurretik kodetuta dauzkan esamoldeak erabiliz. Hizkuntzaren ohiko esapideek informazio-trukerako baino ez dute balio, eta, aurrekoan genioenez, gutxitan hartu ohi dugu guk hitza zer-bait jakin arazteko soilik.

Hiztunek historian zehar Hizkuntzaren kontra diharduten borroka etengabeak bere arrastoak utzi dizkigu: baliabide poetiko-erretorikoak. Azken batean, Hizkuntzak gauzak modu orokor-lauz esan arazten dizkigu (**oso-oso-oso nekatuta nago**), eta horrek gure nekearen berri emateko baino ez du balio. Hori baino areagoko xedea zuen, ordea, **lehertuta**

nago esan zuen lehen hiztunak. Hark ez zuen bere nekearen berri jakin arazi nahi soilik. Hark txunditu egin nahi zuen entzulea (edo, bere nekearen eskerga sentiturik, afaria besteak presta zezala lortu nahiko zuen agian). Hiperbole bat erabili zuen horretarako balizko hiztun hark, hiperbole zer den arrastorik jakin gabe, noski. Hori da, izan ere, gauzen ordena naturala: jarduna dator aurrea, eta metajarduna gero. Mundu guztian da hori horrela. Salbu eta eskolan.

4) **Memoria**. Aurreko hiru egitekoak edozein berbaldiri dagozkie, nola idatzizkoari hala ahozkoari. Erretorika klasikoak, ordea, ahozko berbaldiez ziharduen batez ere. Berbaldia, hala ere, idatziz prestatzen zen, eta gero buruz ikasi behar izaten zen. Itsusiztat jotzen baitzen jendaurrean paper eta guzti jarduteari. Ez hori bakarrik: Grezia zaharreko hizlariak bazekiten buruz ikasitako testua egokiro esaten errazago dela testua paperetik irakurritz baino.


Gaur egun ere, paperean oinarritutako ahozko jardunak dira gure gizartean garrantzi handiena dutenak. Hala dira irrati-telebistetako gehienak. “Ahozko testuak” lantzeko aukera noiz ematen zaio, ordea, jendeari? Eta non memoria landu eta indartzeko aukera? Gaur egungo munduari aurre egiteko prestatzen al ditugu benetan gure gazteak?

5) **Actio**. Azken egiteko hau ere ahozko diskurtsoari bakarrik dagokio. Berbaldirik egokiena prestatu ere, porrot egin baitezakegu, hain neke handiz prestatutako hori ondo esan ezean. Ondo esate horretan sartzen dira alderdi prosodikoak (azentu-pausen kudeaketa), alderdi paralinguistikoak (ebakera, erritmoa, bokalizazioak), eta alderdi estralinguistikoak (kinesikoak eta proxemikoak: keinu-imintzioak, jarrera, distantzia...).

Hori guztia egin beharra dago, porrota segurtatu nahi ez badugu. Hori guztia eginik ere ez da arrakasta segurtatzen. Dirua jokoan dagoenean, zaintzen dira, alde edo moldez, kontu horiek guztiak. Arrakasta izan zein ez izan berdin kobratzen dugunean, berriz, ez dut uste horrelako nekerik hartu ohi dugunik (eskolak prestatzean, edo hitzaldiak, zer esanik ez mahai-inguruak).

Arrakastaren giltza iragartzen nuen artikulu bikoitz honen buruan. Eskaini, berriz, askoz gauza xumeagoa eskaini dizuet: porrot seguruaren bidetik alde egiteko modua. Azkar eta labur jardun behar izan dut, hala beharrez –ezen ez halaberharrez–. Nolanahi ere, porrotaren desbidetik ateratzea izan daiteke arrakastaren bidea aurkitzeko lehen urratsa. Hala biz.

Joxerra Gartzia
EHUko irakaslea





Vascohablantes y castellano hablantes en la historia del euskera de Navarra

Erize, X.
Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura
Departamentua
Iruñea, 1999
316 or.

Historian zehar euskarak gorabehera handiak izan ditu Nafarroan, eta, batez ere, azken mende eta erdian, atzerakada nabarmena. Bilakaera hori eta horren zergatiak jasotzen dira, besteak beste, liburu honetan. Garrantzia dauka jendeak eta gizarteak hizkuntzarekiko duen jarrerak, eta batzuetan agerian eta beste batzuetan azpitik edo ezkutuan jarrera horiek zer-nolako eragina izan duten euskararen erabileran eta ezagueran.



Habilitats comunicatives. Una reflexió sobre els usos lingüístics

Artigas, R.; Bellès, J.; Grau, M.; Lloret, M.
Direcció General de Política Lingüística
EUMO
Vic, 1999

Lan honek bi helburu izan ditu: bata, fikziozkoak ez diren katalanezko testuak tipifikatzea; eta bestea, komunikazio trebetasunak funtzioen bidez irakastea. Testuak tipifikatzeari dagokionez, bost diskurtso-mota aztertu dira: deskripzioa, narrazioa, argumentazioa, agintezkoa eta azalpenezkoa. Horrekin batera, tipologia osoaren adierazgarri, 19 testu jasotzen dira eranskin batean. Komunikazio trebetasunen gainean, bi adibide esanguratsu: informazioa ematen jakitea, eta informazioa eskatzen jakitea.



El castellano actual: usos y normas

Casado, M.
Eunsa,
Pamplona, 2000
201 or.

Guztiok izaten ditugu zalantzak idazterakoan, eta zalantzek argitzeko biderik onena kontsulta liburuetara jotzea da. Horietako bat duzu hau: formato txikikoa, baina gai asko jorratzen dituen. Beraz, eta halaberrez, labur jasotzen dira gaztelaniaren gaur egungo arauak eta erabilerak, eta baita ondorengo gaien inguruko zalantzak argitzeko azalpenak: ortografia, sustantiboak, adjektiboak, zenbatzaileak, aditza, sintaxia, aditzondoak, etabar.



Construir la escritura

Cassany, D.
Paidós
Barcelona, 1999
407 or.

Papeles de Pedagogía saileko liburu honetan, Cassanyk idazketa du hizpide. Lehenik, hizkuntzalaritzak eta psikologiak idazketari buruz egindako ekarpenak laburtzen ditu. Ondoren, DBHko ikasleek egiten dituzten idazkiak aztertu, eta beren akatsak eta mugak jasotzen ditu. Alternatiba bat ere eskaintzen du ekintzak eta ariketak programatzeko, eta azkenik, gomendioak ematen dizkigu ebaluatzen ikasteko.



Psicosociolingüística

Azurmendi, M. J.
EHUko Argitalpen Zerbitzua
Bilbo, 2000
632 or.


Psikosoziolingüistika zientzia berria da; mintzaira eta hizkuntzak ditu aztergai, baina hainbat ikuspegitik. Esaterako, liburu honetan psikosoziolingüistikaren oinarriak eta helburuak finkatu eta aztertu ondoren, psikosoziolingüistikaren hiru ikuspegi jasotzen dira: psikologian ardatzutako psikolinguistika, soziologian oinarritutako psikolinguistika, eta hizkuntzalaritzari uztartutakoa. Esan dezagun, gaur egun nagusi den joera lehena dela, hau da, psikologian oinarritzen dena, baina beste biak, poliki-poliki, bere bidea egiten ari direla.



Gidariaren eskuliburua

Peñas, J. A.; Rebolledo, C.
TRASA-Editorial Tráfico Vial
Madrid, 2000
599 or.

Jakina da gidatzen ikasten ari diren gehienak gazteak direla, eta gazte horietako askok eta askok ikasketak euskaraz egiten dituztela; beraz, ez da harrizkoa autoeskoletan ere gidabaimena ateratzeko ikastaroak euskaraz egiteko eskara gero eta handiagoa izatea. Hutsune hori betetzeko, eta trafikoari buruz argitaratutako legedia eta hiztegiaren ondoren, kalean da gidabaimena ateratzeko eskuliburua. Liburu hau izango da oinarri autoeskoletako liburuak eta testak argitaratzeko; izan ere, itzulpen honetan legean izandako azken aldaketak jasotzen dira.



Funtzionarioa eta infinitoa



Administrazio publikoak funtzionarioa inguratzen zuen maskor baten antzera, oskol erraldoia bailitzan, eta funtzionarioa, administrazioaren barruan, goxo eta epel sentitzen zen. Administrazioaren gainera, maskor okertutik kanpo, hiria zabaltzen eta garatzen zen, kupula garden bat bezala, baina barruan gordetzen zuen administrazioa bezain bihurri eta makurra. Kaleak, espaloiak, etxebizitzak eta biltegiak edonola kokatzen ziren, orden ilun bati jarraituz akaso, administrazioa eta funtzionarioa bilduz eta estaliz bere baitan. Funtzionarioak departamentuak eta kale biribilkatuak zeharkatzen zituen, sail eta eskailera espiralak igoz eta jaitsiz; zerbitzu eta institutu eta tunel ilunak gurutzatzen zituen, hiribide kurboetan okertu egiten zen, beti ere kanpoaldea ikutu gabe, indar zentripeto ikustezin baten eraginez; eta kanpoaldeko auzoetara eta administrazioko azken elkarte publikoetara hurbiltzerakoan, funtzionarioa gelditu egiten zen, eta atzera jo, administrazioaren eta hiriaren muga sekula gainditu gabe.

Eta kanpoan, administrazioko eta hiriko bizitza eta zaratatik at, urruti eta lausotuta, industri poligonoez bestalde, beste hiriak ikusten zituen: iparraldean, ekialdean, hegoaldean eta mendebaldean, hiri bana. Funtzionarioa ez zen inoiz ere bere administraziotik eta hiritik atera, eta etorkizunean ere ez zuen inoiz adorerik aurkituko bertatik ihes egiteko. Administrazioko hautsa, haizea, atsekabea eta tristezia ez ziren nahikoa bere burua kanpora bultzatzeko, oskoletik kanpo ausartzeko, erabateko pausoa emateko. Bertako ustelkeriak, azpijokoak, engainuak, alderdikeriak, inbidiak eta traizioak ez ziren nahikoa izango bere lanpostu grisetik alde egiteko. Baina bai bere barrunbeak gorrotoz eta saminez gainezka jartzeko, egunetik egunera, behazunaren antzeko nahigabearen jarioa etengabe ponpatuz, puztu eta lehertzen diren pus-tula pozoituen antzera. Eta orduan, funtzionarioak beste administrazioak eta beste hiriak imajinatzen zituen, irudipen oparora erabiliz, eta bertakoak ez bezala ikusten zituen begi konposatu bustiez: sail eta kale zuzenak, ente publiko eta hiribide luzeak, zutikako gobernuak eta eraikinak, goi-kargu argiak, parke karratuak, hirigintza-plangintza distiratsuak, erakunde antolatuak, plaza garbiak, eta funtzionario zuhurrak.

Funtzionarioak, lau administrazio eta hiri horietatik bestalderuntz, administrazio eta hiri gehiago imajinatzen zituen. Administrazio eta hiri bakoitza lau administrazio eta hiriz inguratuta irudikatzen zuen, lau puntu kardinaletan, eta sarea infinitoraino zabalduko litzatekeela ikusten zuen. Hau da, administrazio eta hiri guztiak beste lau administrazio eta hiri izango litzukete iparraldean, ekialdean, hegoaldean eta men-

debaldean. Ondorioz, administrazioak eta hiriak infinitoak izanik, eta horiei dagozkien aukera guztiak agortu ondoren, departamendu eta kale eta agentzia eta hiribide eta zerbitzuru eta etxebizitzaren konbinaketa posible guztiak suertatu ondoren, funtzionarioaren administrazioa biltzen zuen hiria bezalakoxea legoke nonbait, berdin-berdin eraikita, barruan administrazio berbera gordeta, eta bera bezalako funtzionarioa momentu horretan bertan espediente bera aztertzen lego-keelarik.


Eta infinitoa infinitoa denez, bereak bezalako administrazioa eta hiria ere infinito aldiz errepikatuko lirateke, eta bera bezalako infinito funtzionario infinito aldiz errepikatutako espedienteak tramitatzen egongo lirateke infinito administrazioan. Funtzionarioari, hala ere, infinitoak ez zion bertigorik sortarazten, horrek ez baitzuen sekula eraginik izango bere

lanean hartu beharreko erabaki hutsaletan eta burutu beharreko ekintza xumeetan. Hiri ilunaren barruko administrazio ustelean betirako sartuta, bizitza osorako eta erremediorik gabe bizirik lurperatuta, funtzionarioa kokoteraino zegoen, nazka-nazka eginda, bazekielako gorroto likidoa besterik ez zuela sortuko bere lan errepikatua betetzen zuen bitartean, zorigaitzoko zorrea jariatuz, oreka termikoa mantentzeko, behin eta berriro, behin eta berriro...

“funtzionarioak beste administrazioak eta beste hiriak imajinatzen zituen, irudipen oparora erabiliz, eta bertakoak ez bezala ikusten zituen begi konposatu bustiez”


Oharra: termita-espezie batzutan, termitategitik inoiz ere aterako ez diren indibiduoak aurki daitezke, termitategi barruko temperatura mantentzen duen likido berezia eratzeko espezializatuak.

Gorka Burguete
Idazlea



A b a r a s k a

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakiaren inguruan kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar direla.




LUMA

1. Puskak. 2. Elur-zati txikia. 3. Gorputzaren barrunbea, hesteak, urdaila eta beste organo batzuk jasotzen dituena. 4. Juduen jai nagusia. 5. Erregai-mota. 6. Izanak. 7. Goxoak. 8. Nafarroako udalerria. 9. Burdinazko lokarriak. 10. Karta-jokoa. 11. Errioxako herria. 12. Jakituna. 13. Barre xumeak. 14. Aran-mota. 15. Ibilgailuak. 16. Salaketa egin.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordea: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEL: 943/47 33 77

H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Nongoa da aktore hori?

S o l u z i o a k

ERANTZUNA:
ALEMANIARRA
(A-LEMA-NIARRA [arraina alderantziz])

H i e r o g l i f i k o a

1. Zatak. 2. Maitua. 3. Sabela. 4. Bazkoa. 5. Ikatza. 6. Ukanak. 7. Eztaik. 8. Aurtz. 9. Kateak. 10. Tarta. 11. Natara. 12. Ikasia. 13. Irrak. 14. Okaran. 15. Autoak. 16. Salatu.

A b a r a s k a